

AHO-BELARRIAK PREST

Ahal den guztiekin eta ahal den guztietan
euskaraz egiteko proposamenarekin
dator lehen Euskaraldia 20



Zatoz GAESera eta hau emango dizugu:
ENTZUMENAREN AZTERKETA OSOA
+ BALORAZIO-TXOSTENA **GUZTIZ DOAN**
DEITU ORAIN ETA ESKATU HITZORDUA

GAES Azpeitia

Foruen Ibilbidea, 8
Tel. 943 150 395

TRINIDAD MORA
ENTZUMEN ZENTROAK


GAES
Entzumen Zentroak

10 URTE

bertan
azpeitikomerkatariekarteia



ZUEKIN



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 210.a (2018ko azaroa)
Urtea. XIX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñigo Sorraluze
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza
 Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako
 Sailburuordetzak) diruz
 lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

||| 2018KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



iritzia

Inkesta. Herrian bizikletan ibiltzen al zara? **13**

mamia

Elkarrizketa. Ander Sorraluze Ixa ikerketa taldeko kidearekin hizketan **04**
Klik! Olatz Altunak askotariko argazkiak ateratzen ditu **16**



Lehorrekoak uretara. Hainbat azpeitiar arraunean aritzen da inguruko klubetan **26**

jakiteko

Atzera begira. Ukrainatik hainbat uda pasatzera etorri zen haur hura Azpeitian bizi da gaur egun **34**

Ba al dakizu apustu etxeen aurkako 1.000 sinaduratik gora bildu dituela da goeneko elkar-ekinek? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

ANDER SORALUZE

Ixa taldeko informatikaria

“Euskal komunitatea oso aktiboa da”

EHUko Ixa ikerketa taldeko kidea da. Hizkuntzaren tratamendu automatikoan egiten du lan, eta euskararen ikerketa aplikatua da taldearen xedea. 📧📞 Julene Frantzesena

Hamar urte pasatxo daramatza Ander Soraluze Ixa taldean. Informatikaria ikasketaz, hizkuntzaren prozesamenduaren zientzia esparruan egiten du lan. Euskararen kasuan oraindik ikerketa lan ugari dago egiteko haren arabera.

Zer da Ixa taldea?

Hizkuntzaren tratamendu automatikoan lan egiten duen Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa taldea. Euskararen gaineko ikerketa aplikatua du xede nagusia, baina beste hizkuntzen inguruko ikerketak ere egiten ditu taldeak. Ikerketa horietan oinarrituta, baliabide eta aplikazio edo tresna linguistikoak sortzen ditugu.

30 urte dira Ixa sortu zutela. Zu noiz eta nolatan hasi

zinen ikerketa talde horretan lanean?

Informatika ingeniari-tza ikasketen bukaerako proiektuarekin murgildu nintzen mundu honetan. Ixa taldean lan egiteko lankidetzak beka bat lortu nuen 2008an, eta horrela batu nintzen taldera. Beraz, aurten 10 urte bete ditut Ixa taldean. Ingeniaritza ikasketak bukatu ondoren, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua (HAP) izeneko masterra egin nuen. Master horren helburu nagusia da hizkuntza aztertea eta hizkuntza hori ordenagailu bidez tratatzeko dauden teknikak eta aplikazioak ezagutzea, eta master horrek ireki zizkidan aurreko urtean defendatu nuen tesia egiteko atak.

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1986ko apirilak 27.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Donostia. ||| **Lanbidea.** Ixa ikerketa taldeko kidea.

Hizkuntzaren prozesamendu idatzian egiten duzue lan. Zertan datza zure lanak?

Hizkuntzaren prozesamendua edo lengoia naturalaren prozesamendua bezala ere ezagutzen den zientzia esparruan egiten dut lan. Hain zuzen ere, arlo horrek informatika eta hizkuntzalaritza uztartzen dituela esan daiteke. Lengoaia naturalaren prozesamendua oso mundu zabala da, eta alor asko barnebiltzen ditu. Momentu honetan, zehazki, sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa osatzeko

proiektu batean ari naiz lanean, Baionako Iker ikerketa taldekoekin elkarlanean. Proiektu horren helburu nagusia da euskarazko corpus historikoa sintaktikoki arakatze baliabideak prestatzea, ondoren hizkuntzalariek euskal gramatikaren ezaugarri nagusien inguruko azterketak egin ditzaten. **Informatikaria izanda, nolatan hartu zenuen hizkuntzari lotutako ikerketaren bidea?**

Beti izan ditut gustuko hizkuntzak, baita informatika ere, eta hizkuntzaren prozesamendua bi alderdi horiek uztartzeko aukera eskaintzen dit bete-betean. Hala ere, eguneroko jardunean ni gehiago arduratzen naiz proiektuen arlo informatikoaz, nahiz eta



hizkuntzaren inguruko oinarrizko ezagutzak beharrezkoak ditudan arlo honetan lan egiteko. Ezagutza hori HAP masterrean lortu nuen.

Besteak beste, hain ezaguna den Xuxen zuzentzaile ortografikoa Ixa taldeak sortua da, baita Matxin gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa ere. Zer garrantzia

dute halako aplikazioek euskararen sustapenean?

Teknologiak eta horietatik sortzen diren tresnak estrategikoak dira hizkuntzaren etorkizunerako. Euskara bezalako hizkuntza gutxituen kasuan, horien estandarizazioan, normalizazioan eta biziraupenean laguntzen dute tresna horiek, eta lagungarriak dira erabilitzaileentzat.

Azken urteetan itzulpen-gintza automatikoa hainbat lan egin duzue. Hizkuntza handietan lan horiek nahikoa aurreratuta daude eta emaitzak nahiko txukunak dira. Nolako euskararen kasua? Emaitzak hobetu al dira?

Euskal Herrian bada itzulpen automatikoaren ikerketan punta-

“Beti izan ditut gustuko hizkuntzak, baita informatika ere”

“Teknologiak estrategikoak dira hizkuntzaren etorkizunerako”

puntan lanean ari den jendea. Adibidez, Ixa taldea partaidea den Modela proiektuan aurkeztutako neurona sareetan oinarritutako euskara-gaztelania gaztelania-euskara prototipoak oso emaitza txukunak lortzen ditu. Hala ere, badago hobetzeko aukera, eta horretarako ikerkuntza sustatu, lagundu eta bultzatu behar da. Erakundeen inplikazioa behar-beharrezkoa da horretarako.

Bertsolaritzaren arloan ere egin duzue lanik. Zer, zehazki?

Bai, hala da. Zabalkunde handia izan zuen bi robot bertsotan aritu ziren ekitaldiak. Horren guztiaren atzean hizkuntzaren sorkuntza dago. Lengoia naturalaren prosesamenduan lantzen den gaietako bat da hizkuntzaren sorkuntza, eta hori Ixa taldearen ikerle-roetako bat da.

Interneten euskara txertatzeko eta teknologia berrien nahiz informatikaren arloak euskalduntzeko lan egin du Ixak. Zer leku du euskarak gaur egun eremu horietan?

Europako hizkuntzen teknologia aztertzen duen META-NET sareak 2012. urtean egindako azterketa baten arabera, aztertutako Europako 30 hizkuntzetatik 21ek duten babes digitala “hutsala”, edo kasurik onenean, “eskasa” da. Euskara 21 hizkuntza horien artean dago, eta ez da azkenetakoa. Euskararen egoera baikortzat jotzen da, baina zuhurtziaz az-

tertu beharrekoa dela ere argi dago. Islandiera, esaterako, iraungitze digitalera iristeko arrisku bizian dago ikerketa horren arabera.

Informatikaren mundu zabalean erraza al da euskarari tokia egitea?

Ingelesa erabat ari da nagusitzen teknologiararen erabilerari dagokionez. Oinarrian erabiltzen duten teknologia komuna izan arren, hizkuntza bakoitza mundu bat da, formalizazio, tresna eta baliabide bereziak behar dituelako. Oraindik asko dago ikertzeko, eta zer esanik ez euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan. Egoera onean gaude erronka horri heltzeko, aurretik egindako lanean oinarrituta hasi baikaitezke urratsak egiten. Dena den, mugitu beharra dago atzean ez gelditzeke, eta horretarako ezinbestekoa da erakundeen babesa.

“Ikerketa Lan asko dago egiteko; gehiago, hizkuntza gutxituetan”

“Hizkuntza txikiek baliabide gutxiago izan ohi dituzte”



Ixa taldeko kideak. Beheko ilaran, ezkerretik hirugarrena da Soraluze. ||Ixa

Informatikaren arloan, gainerako hizkuntza gutxientzat eredu izan al daiteke euskara?

Hizkuntza txikiek baliabide gutxiago izan ohi dituzte. Horrek zaildu egiten du ikerkuntza; izan ere, hizkuntzaren prozesamenduan erabiltzen diren metodo estatistikoek, eta bereziki, azkenaldian modan dauden sare neuronalek corpus edo testu bilduma handiak behar dituzte emaitza onak lortzeko. Edonola ere, euskal komunitatea oso aktiboa da, eta

erreferentziakoa ere bai beste hizkuntza gutxituetako ikertzaileentzat. Beste hizkuntzetarako egindako ahaleginak ez dira alferrik izaten, eta horiek ikasteko ere balio izaten dute. Gauza bera gertatzen da euskararen inguruan egin diren ahaleginekin; horiek ere balio dute beste hizkuntzetarako.

Etorkizunerako zer erronka aurreikusten ditu Ixa taldeak?

Datozen urteetan hizkuntza teknologia ardatz estrategikoetako

bat izango da Europan –eta Espainian–, eta inbertsioak egingo dituzte arlo horretan. Euskal Herrian ere pareko plan bat behar litzakete lehenbailehen. Tren hori ez galtzeko, ikerkuntza eta trebakuntza espezializatuak bultzatu behar dira, eta asmo horiek beteiko dituen HiTZ (Hizkuntza Teknologiko Zentroa) sortu berri da Ixa taldearen eta AhoLaben ekimenez. Zentro hori erreferentziakoa izango da ikerketatik lortutako emaitzak gizarteratzerako orduan ere.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Aberastegi poligonoa, 2
Tel. 943 335 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumaia

San Juan, 15 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Askañeta

Geologia Karra, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Bizitzako antzerkia

Biziraun, antzerkiari esker diraugu bizirik. Egunero jaiki orduko hasten da gure bizitzako funtzioa. Berdin samarra dirudien arren, berrasmatzen doan antzerkia da egunero egiten duguna. Egunerokotasunari koloreak eman nahian, oharkabean mozorrotzen gara batzuetan; nahita, berriz, beste batzuetan. Jolas horri esker estaltzen dugu monotoniaren monokromatikotasuna eta berrasmatzen ditugu existitzen ez diren koloreak. Eskerrak!

Erresilientzia dela diote adituek, aspaldi asmatutakoa eta denok jaiotzaz txertatuta daramagun zerbait bailitzan. Eta beno, bai, baliteke hala izatea. Kontua bizitzan nola edo hala aurrera egitea da, ezta?

Gurea krisiak astindutako herri bat gehiago da, eta ondorio tamalgarriak jasan dituen, beste askok bezalaxe. Baina herri honetan, herritarren erresilientziari esker, aurrera begiratu eta bizitza berrasmatzea lortu dute askok eta askok; beste askok aldiz, ez. Eta al daketen onarpena ezin eramanagatik, erresilientzia hautatu beharrean, antzerkia egitea aukeratu dutenak ere badira.

Bakoitzak ahal duena egiten du, modu batean edo bestean. Zein da ba nor bataren edo bestearen hautua epaitzeko, neurtzeko edo hatz puntarekin nabarmentzeko? Denak dauka guztiarekin zerikusia, eta kanpotik ikusten dugun antzerkiak, erresilientziak edo dena delakoak barne lanen, gaitasunen eta ezintasunen bat du arrazoi. Aurreiritziengatik ari natzaizue bai, denok baitugu aurreiritzien sarean harrapatuta geratzeko arriskua! Edo ez?

Bizitzaren telesaila

Denok denon berri dugulakoan gaude, eta *Goenkale* telesaila izango balitz bezala ikusten dugu bestearen bizitza, arinkeriaz eta aurreiritziz, topikoz eta tipikoz betea den telesail bat bailitzan. Ez zaio ez adar konturik eta heriotz tragikorik faltako, joera politikoak aipatu



|||||||olatz aguado||||

|||Zein da ba nor bataren edo bestearen hautua epaitzeko, neurtzeko edo hatz puntarekin nabarmentzeko?

gabe, besteen bizitzaren telesailari. Eta atal erdirik galdu ez balute bezala hitz egiten edo jarduten dute “betikoak” diren batzuek, besteen bizitzako Wikipediaren jabe izango balira bezala...

Kontua da norbera eta gertukoa den besteren bat kenduta, inork ez dakiela ezer besteen bizitzaz. Norberak ere, askotan lanak izaten ditu hartutako erabakien liseriketa egiterakoan, besteek hark zer jan duen jakingo balute bezala hitz egiten duten bitartean. Beraz, jarrai dezagun antzerkiarekin, edo ez: bakoitzak ahal duena egingo du eta ondo egongo da, eta... *Show must go on!*

Urrutiko lagun batek esaten zidan eskuekin zigi-zaga keinua eginez: “Interesgarria da bizitza horrela denean, ezta?”. Azkar ulertu ginen elkar, eta baiezkua eman nion. “Zigi-zaga” eta “horrela” esanahia adierazi ahal izango nuke, baina noberak atera ditzala horien esanahiak eta ondorioak. Nor naiz ba ni ezer esateko? Eta nor da ba beste hura bestearena epaitzeko?

Bakoitzak erresilientzia, antzerkia, mimika edo igeriketa sinkronizatua balia dezala bizitzaren olatuak gairitzeko, eta lixto!*



Hamar euro merkeago

Desorduetan bizi naiz, eta desorduetan bazkaldu ohi dut. Gaztelaniazko albistegiak laguntzen dit 15:30ak inguruan; ez nik nahi dudalako, beste lagunik izaten ez dudalako baizik. Kaso neurrian egiten diot, baina joan den egunean kontzeptu berri bat entzutean, plateretik altxatu nuen burua. *Showrooming* ari ziren. Itxura denez, hainbat sektore urtebete baino gehiago dabil gai horri tira eta bira, baina ni orain ere desorduetan... Zu ere hala bazabiltz...

Demagun herriko zapata denda bateko botak gustatu zaizkizula. Zer marka diren begiratu duzu, eta Internetera joan zara haien prezioa ikustera: "Hara, herriko dendan baino hamar euro merkeago, eta gainera doan bidaltzen dizkizute etxeraino". Horraino dena ondo, baina ez zaude ziur zer neurritakoak behar dituzun... 42 edo 43? Beraz, *showrooming* bat egiten duzu; alegia, dendara joaten zara, eta probatu egiten dituzu, dendan bertan erosteko asmorik gabe. Ondoren, saltzaleari esaten diozu ez zaizkizula asko gustatu, eta zast! Internetetik erosten dituzu botak. Ez dakit nongo periferiako biltegi batetik iritsiko dira, baina aizu, hamar euro merkeago!

Bada, dagoeneko zenbait dendari elkarte hasi dira pentsatzen arropak, liburuak, telefono mugikorrak... probatzea kobratu egingo dutela, bestela ezin zaiolako egoerari aurre egin. Izan ere, dendari txikiek ez dute gaitasunik Interneteko munstro horien aurrean lehiazeko: lokala ordaindu behar dute, argia, ura, zergak. Baina dendari txikiek gaitasuna dute herriko erosleak mimatzeko.

Duela aste batzuk pijama bat erosi nion herriko dendari bati. Ez nekien seguru nolako pijama nahi nuen eta zer neurri beharko nuen. Dozena erdi pijama atera zizkidan kaxetatik, eta han ibili ginen; bat edo bestea, M edo L. Berarekin batera aukeratutako pijamarekin irten nintzen dendatik, familiaz eta asteburuaz hitz egin ostean. Hori da, hain zuzen, gure dendariak ematen digutena. Hortik eta horre-



eneritz albizu

III Dendari txikiek ez dute gaitasunik Interneteko munstro horien aurrean lehiazeko

tarako bizi direlako ordaintzen dugu hamar euro gehiago.

Herriari kolorea jartzen

Ez naiz ni erosketak ez direla Internetez egin behar esango duena. Izan ere, nik ere gure amak nahi baino gehiago erosten dut sarean. Esan nahi dudana da balioa eman behar diogula herriko dendariak egunero jartzen duten borondateari; eta, gutxienez, errespetuzkoa dela herriko denda batean gustatu zaizun produktu hori bertan erosteko saiakera egitea. Herrian egin dezakezuna herrian egitea; beti ez bada ere, aldika-aldika. Eta, tira, horretara iritsi ezin badugu ere, behintzat, ondo legoke *showrooming* tankerakoak saihestea.

Dendariak bizitza ematen diote herriari. Beraien eguneroko lanari esker, herrian bertan ditugu behar ditugun produktuak eta zerbitzuak. 200 denda inguru egongo dira Azpeitian, eta horiek izaera ematen diote herriari. Bizimodu duina bermatzen digute, eta askotan apustu handiak egiten dituzte, pertsonalki eta ekonomikoki.

Badakizu zein den herri bat jendez husten ari denaren zantzu garbiena? Zalantzarik gabe, dendak ixtea. Eta hori sorgin-gurpil bat bihurtzen da. Dendek itxi egin behar dute berzerorik ez dutelako, eta herritarrak beste toki batzuetara joaten dira bizitzera, zerbitzurik ez dutelako. Baina, noski, horiek kontu potoloak dira, ezta? Nik Internetetik botak erosi nituen, besterik ez. Desorduetan, agian.*



URRIA

27. LARUNBATA
1766 AZKOITIKO eta
AZPEITIKO GARIAREN
MATXINADA
 AZPEITIKO KULTUR MAHAIA
 22:00etan, Soraasu Antzokian

AZAROA

1. OSTEGUNA
Helduentzat
LUR-XAKE PRODUKZIOAK
 19:00etan, Soraasu Antzokian

2. OSTIRALA **ESTREINALPIA**
Helduentzat
7ak Bat-ATX TEATROA
 21:30ean, Soraasu Antzokian

3. LARUNBATA
Helduentzat
Txarriboda-HIKA TEATROA
 21:30ean, Soraasu Antzokian

4. IGANDEA **ESTREINALPIA**
Haur + Helduentzat
Inondik Inora-BENETANBE
 KONPAINA
 17:00etan, Soraasu Antzokian

5,6,8 eta 9
SORMEN ASTEA

AZAROA 5 eta 6
 Antzerki talera: Oier Guillen eta Jabier Barandiaranen eskutik **Tartean dauden gorputzak** lasterako izango da hiru egunetan zehar.

AZAROA 8. OSTEGUNA
 MIKROANTZERKIAK
MAITA(K) ALE BORROKA
 20:00etan, Plaza Nagusian
KRONOPIA
 21:00etan, Sanagustin Kulturgunean

AZAROA 9. OSTIRALA
 Kulturaz Antzerki Sormen Egonalditik
2019ko delaldi berriaren aurkezpena
 12:00etan, Sanagustin Kulturgunean

7. OSTIRALA
Helduentzat
Oxido-PEZ LIMBO
 21:30ean, Soraasu Antzokian

10. LARUNBATA
Helduentzat
Dublindarrak-ADDS TEATROA
 21:30ean, Soraasu Antzokian

11. IGANDEA
Haur + Helduentzat
Ulises-GORAKADA
 17:00etan, Soraasu Antzokian
Xokolat (0-3 urteko umeentzat)
 PARAIKO TEATROA
 17:00etan, Sanagustin Kulturgunean

12, 13, 14 eta 15
ESKOLA EDO GAZTETXOEI
ZUZENDURIKO ANTZERKIA
 11:00etan eta 15:30ean,
 Soraasu Antzokian

2 eta 18
"TXONTXONGILOEN AMETSAK"
Corrado Masacci-ren
Txontxongilo metodologia
 Belharriari Arretan, Golez Arratsaldean

15. OSTEGUNA
Helduentzat
Takoldun Zapata Gorrlak
 PISZIFAKTORIA, 21:00etan,
 Udelebeko Ganberan

16. OSTIRALA
Helduentzat
Elurra-EROMEN PRODUKZIOAK
 21:30ean, Soraasu Antzokian

17. LARUNBATA **ESTREINALPIA**
Helduentzat
Roman eta Julieta
 BOROBIL TEATROA
 21:30ean, Soraasu Antzokian

18. IGANDEA
Haur + Helduentzat
Linbo Planeta
 DEJABU PAMPIN LABORATEGIA
 17:00etan, Soraasu Antzokian

ZIKLO BEREZIA ANTZERKI
ALTERNATIBOA
22. osteguna
Tomiris eta Agur eta Dolore
KAMIKAZ KOLEKTIBOA
ETA TTAK TEATROAK 21:30ean,
 Gaztetxean
 Arratsaldeko 20:00etatik
 21:15etara jantoki bejeteriarra

24. LARUNBATA
XXXVI. Euskal Antzerki
Topaketen Amaierako
Ikuskizuna
Martin Zalakain
 ARTEDRAMA
 21:30ean, Soraasu Antzokian

ZATOZ ETA GOZATU EUSKAL ANTZERKIAZ!

XXXVI. EUSKAL ANTZERKI TOPA KETAK AZPETA



2018-KO UPAZKENA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA. Jarduera euskaraz bukatu dute.**

Saltoki honen jabeek modu ikusgarrian eta euskara hutsean jarri dute negozioa jarduera amaieragatik itxi dutela jakinarazteko kartela. Bejondeizuela! **Uztarrria**

**BEHERA. Loiolabiden ikusia.**

Etxebeltz-Izarra eremuan, babes ofizialeko etxeen horman dago irudiko kartela. Azkenak izango dira, bai; gaztelania hutseko azken kartela izango al da? **Uztarrria***



Paola Moto.

ESANA DAGO

“Produkzio idazkaria izan naiz ‘Oreina’-n. Bulegoko lana egin dut gehienbat”

“Haurra nintzenetik ditut gogoko zinema eta antzerkia, eta banuen bi mundu horien atzean zer ezkutatzen zen jakiteko grina”

PAOLA MOTO
‘Oreina’ filmeko pro-
dukzio idazkaria

“Etxean jotzea beti da berezia, are gehiago Berlingen bizi naizenetik.

IBAN HERNANDEZ
Necros Christos eta
Extinctioneko bateria-
jotzailea

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Aiortza Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Iheslariak

Dakitenek diotenez, jakituria eza da aursardiaren ama. Jakin badakit gutxi dakidala, eta zekien hark zioen bezala, nire jakituria txikia elikatzen hasi orduko jabetzen naiz nire jakituria zein urria eta eskasa den. Badakit, baita ere, hemendik aurrerako hizki jarioak gizakiaren etorkizunean eragin ahula izango duela, baina zutabetxo honi esker, barruan dudana husteko aukera aparta dut. Dakitenek uztarriaterapia deitzen diote.

Dakitenek jakingo dute, baina ontzat jotzen diren portaera edo irizpide askorekin ez nator bat. Iruditzen zait arazoei aurre egin beharre-

an, arazoei ihes egitea hobesten dela. Borrokatzen irakatsi beharrean, izkin egiten irakasten digutela. Eta arazoak alfombra azpian gordeta, denbora batez ezkutatuko ditugu, baina konpondu ez. Horregatik, jakituria urriko aursarta, erratzaren eta fregonaren aldekoa naiz.

Dakitenek, ezer gutxi dakien Urbietak baino dezente gehiago dakite. Baina Urbietak asko harritzen da goxotasunean besteen erabakiekin eroso sentitzen direnen patxadarekin. Ez naiz kontu hauetan aditua, baina nire harridura erakutsi gabe, ezin lasai bizi. Zergatik errealitate gordinari ihes egiten saiatu, errealitate



txetxu urbieta

hori beti hor egongo dela jakinda? Esate baterako, zergatik mugikorrak haurrengandik urrundu? Zergatik haurren partidetako emaitzak ez jakinarazi inor ez mintzearren? Nire uste apalean, askoz ere hobea da egunerokoa aurrean jartzen dizkigun hesiei aurre egiten erakustea; ez utzi gerorako. Arkatza ere tresna arriskutsua zen inkisizio garaian! Mikel Aranburuk ere partida asko galdu zuen –entrenatzaile kaxkara–, baina kirolari eredugarria izan da. Eroso eta gozo zorionaren antonimo direla uste dut, zoriona arazoei aurre egiteko kemenaren sinonimo delakoan.*

IKUSTEKOA!



▲ZENBAT PISATUKO DU ERAKUSLEIHOKO KUIAK?

Kuia handi samar bat ikus daiteke Sanjuandegiko Eguzki belar dendako erakusleihoan. Hala jarri du, gainera, dendaren jabeak erakusleihoan itsasi duen kartelean: "Asmatu pisua, eta lortu saria!". Ea inork asmatzen duen barazki handi horren pisua zenbatekoa den. 🍷🍷 Nerea Uranga*

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Bihotza hautsita

GIZARTEA. Iren txikiaren bezalako kasuek bihotza hausten didate, ba ikustekoa da haur horiek eta beraien familiek aurrera egiteko ateratzen duten indarra, zeru eta lur mugitzeko prest beti. Aldi berean, odolak surik gabe irakiten dit; izan ere, ez da ia dirurik inbertitzen gaixotasun arraroen ikerketan. Familia horiei lagundu beharrean, safarietan eta abarretan xahutzen dute diru publikoa, eta hori lapurtu dutena kontuan hartu gabe. Finean, elkartasun onena eta beroena herriak ematen du beti. Elkartasuna da herritaren samurtasuna.



ieltxu caballero



Gune baliagarria

KIROLA. Egun pertsona askok dute bizitza sedentarioa, eta horrelako gune bat aspaldidanik falta zen Azpeitian. Oso baliagarriak dira halako guneak, batez ere, adineko herritarren osasuna hobetzeko. Gainera, makinak erabiltzen irakasteko saioak antolatu dituzte. Hala ere, gune horri ikusten diot zera bat: urruntasuna. Ikasberri ikastolaren ondoko zelaia gune egokiagoa iruditzen zait, herritik hurbilago dagoelako eta jendea errazago joan daitekeelako.



'Karakola' biziberrituta

HIRIGINTZA. Ederra da gure herriko kaleak eta hormak halako artelan ikusgarriekin apaintzea; izan ere, herrian apain daitezkeen bizitasunik gabeko leku ugari daude. Gure kale, pasabide eta abarrei hoztasuna eta gris kolorea kenduta, beste ikuspuntu eta berotasun bat emateko aukera daukagu.

Artearentzat beti dago lekua, eta ez horma askotan dauden gizonen sexu organoen marrazkiekin betetzeko. Pixka bat begiratu gero, halako asko dagoela ohartzen zara; inork ez ditu ezabatzen.*

INKESTA

Herrian bizikletan ibiltzen al zara?

 **Ihintza Elustondo**

UXUE ORTEGA

13 urte



"Askotan ibiltzen naiz bizikleta ganean. Besteak beste, eskolara,

kiroldegira edo ingelesera joaten naiz bizikletaz. Oinez ibiltzea baino nahiago dut, alferkeria gutxiago eragiten didalako".

UNAX URIA

12 urte



"la egunero ibiltzen naiz bizikletan. Gure adineko jende

mordoa ibiltzen da bizikleta hartuta, baita patinetearekin ere".

MARKOS RODRIGUEZ

39 urte



"Tarteka, bizikleta hartu eta Lasao edo Nuarbe

aldera joaten naiz bizikletaz, umeekin batera. Dena den, nahi baino gutxiago ibiltzen naiz bizikletarekin, ia denborarik ez dudalako. Lehen gehiago ibiltzen nintzen".

KRISTINA AIZPURI

35 urte



"Batere ez naiz ibiltzen bizikletaz. Ez dut

horretarako ohiturarik, eta beharrik ere ez dut inoiz sentitu. Normalean, oinez ibiltzen naiz. Hala ere, tentazioa ematen dit, eta agian hasiko naiz bizikletaz ibiltzen".*

Azpeitia, arnasgunea

Zeren arnasgunea da Azpeitia? Jakina, euskararena. 1985. urteko udan zapaldu nuen lehenengoz Euskal Herriko lurra, artean euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez komunikatzeko gai ez nintzela. Euskaraz ikasten ari nintzen, baina ozta-ozta hitz egiten nuen, eta entzumen eta ulermena ondo landu gabe nituen. Donostiako lagun euskaldun batzuekin ibili nintzen, bi aste pasatu nituen.

Egun haietako batean, oparien bila joan nintzen bakar-bakarrik Alde Zaharrera. Egarria neukan, eta taberna batera sartu nintzen. Euskaraz, hala esan nion tabernariari: "Mosto bat, mesedez" -arteaz ez nekien ardoaz gozatzeko-. Tabernariak ulertu zuen, baina erdaraz erantzun zidan: "*Si, ahora mismo, señorita*" -arteaz señorita deitzen zidaten-. Sartu nintzen dendetan eta gainerako tabernetan ere, antzera edo okerrago; zenbait dendarik ez zuen ulertu ere egiten. Eta desesperatzen hasi nintzen. "Euskaraz ez badu balio kalean erabiltzeko, zertara-




hiromi yoshida

ko ari naiz ikasten?", galdetu nion neure buruari. Euskaraz ikasteari uzteko erabakia hartzean egon nintzen, baina lagun batzuk baneuzkan euskaraz hitz egiteko, eta muzin egin nion alboratzeari.

Gerora ere, leku askotan desesperatzen nintzen: adibidez, denek euskaraz zekiten lagun euskaldun baten etxean batere ez zuten erabiltzen; edo Lazkao euskaltegiko ikasleok afaria izan genuenean, inork ez zuen euskaraz jardun... Zinez egoera negargarria gure euskaraz maitearena!

Euskal Herrian leku askotatik pasatuta, 1995ean, azkenean, Azpeitira iritsi nintzen, Tokion ezagutu nuen Iñaki Beobide azpeitiarrari eta haren familiari esker. Han aurkitu nuen benetako euskararen arnasgunea; izan ere, Azpeitian une oro lasai asko bizi naiteke euskaraz. Orain lagun handiak ditudan Koldori eta Olatzi esker jarraitzen dut Azpeitira joaten, eta hor naizen bakoitzean euskaraz bizi ahal izate horrekin gozatu egiten dut. Esker anitz, Azpeitia!*

Gal detzen hasita, zer adierazten du herriko hainbeste tabernatan ia beti TeLe5 katea sintonizatuta edukitzeak?  Uztarria

Ezkerreko erreitik

Badator Euskaraldia, eta Ahobizi eta Belarriprestok mihiak bixi-bixi eta belarriak tente jartzeko gogotsu gaude. Ekimen horrek sarritan euskaldunon ahotan izan dugun eztabaida dakarkit gogora. Zer da euskaldun izatea? Nor da euskalduna? Bihotza, eza gutza ala kontzientzia da gakoa? Azken hilabeteetan euskararen alde lanean jende mordoa ari den bitartean, *ingeleskeriak* egiten aritu naizela aitortzen dut. Bai, ingelesa sentitu naiz nahi baino gehiagotan.

Maite dut, bizikleta edo patinak lagun, Azkoitia-Azpeitia arteko bidegorriko lasaitasunaz gozatzea, baina sarritan lasaitu ordez emegatuta itzultzen naiz.

Bizikleta hartu eta Azkoitirako bidea bikaina. Itzulerak, ordea, nire baserrietik mendi muinora irteteko astoek zuten bidea gogorarazten dit: bazterretan gerrirainoko belarra eta sasia ugari. Loiolara iristerako eskuin hanka urraduraz josia dudala ohartzen naiz, ziztu bizian damutzen naiz eguzki epela ikusi eta galtza motzak jantzeaz.



irati aranguren

Bakoitzak berea omen legea. Beraz, fardoak egiteko adinako belarrak itzal umela ere halakoxea. Umela diot bai, erreka ertzak horixe du xarma. Dena den, patinetan ibili ohi garenontzat ipurtaldekoak hartzeko aukerak esku-eskura.

Kontuak kontu, Azkoititik etxerako bidea hain estresagarria ez izateko, neure osasunaren alde, ingelesarena egitea bururatu izan zait. A zer plazera ezkerreko erreitik erreka entzunaz etxera itzultzea! Hala ere, beti dago ernegatua bizi den norbait, okerreko bidetik noala oihukatuko didana, lotsagabea naizela aurpegirotuko didana, ez nagoela Ingalaterran gogoraraziko didana, etab. Nondik noan jakingo ez banu ere!

Euskaraz dantzatzen dut, euskaraz laguntzen dut, euskaraz amesten dut, eta bidegorrian ere euskaldun sentitu nahi dut.

Ziur naiz Loiolako Inazioaren bihotzeko lagun Frantzisko Xabierkoa datorrenerako txukunduko dutela bidegorria.*

HAU HOLAXEENK



Udazkenak?

Galdera zailak ez dago, erantzunak dira zailak”, zioen bertsolariak. Eta arrazoi zuen. Galderen gotorleku izan ohi da udazkena. Eta udaberriak norbera loratzeko gaitasuna duen moduan, udazkenak badu gure distira ahultzekoa. Barrura begira jartzen gaitu, inausketa pertsonal baten modura. Errutinara buelta, txankletak gordetzetik oheko maindire lodiak aldatzerainoko prozesua, ohikoak baino ugariagoak diren ile matazak dutxako isurbidean... Aldaketa ugari eta galdera pila.

Iraganari begiratu behar izan diodan urteen, “nondik nator?” galdezka pasatu dut

udazkena; etorkizunari begiratzeko moduan nintzenetan, “nora noa?” izan da premisa; baina udazken honetan galdera batek erdibitu nau: “Zer zara?”, galdetu zidan duela gutxi ikasle batek. Erantzunik ez nuenez, udazken honetako galdera bihurtu dut. Aitortu behar dizuet, etiketen aurka dudau auzi honetan nire burua etiketatu ezinakin ezinegona sortu didala. Zerk definitzen gaituen definitu beharko dut lehenengo. Sexuak? Generoak? Lanbideak? Ikasketek? Zaletasunek? Harremanek? Ideia politikoez? Eta ondoren, aukeratutako alderdi bakoitzaren piezekin puzzlea osatu.

Galderen aurkikuntzaren eta erantzunen bilaketa artean, Garagardo Azoka amaigabeko udazkenak izan ditut, baita Antzerki Topaketetan komedietara bakarrik joaten nintzenak ere. Gure herriko udazkenak badituelako eguneroko zurrunbilatik ateratzeko aukerak. Aurtent, ordea, psikologia positiboko formazio bat dakar herrira San Martin hegoak, eta galderak galbide ez izateko modua izan daiteke hori; beldurrik gabe barrura begiratzekoa, horretarako hartu ohi ez dugun beta hartzekoa. Galdera bat egingo dizut, irakurle: zenbat denbora eskaintzen diozu erantzunak aurkitzeari?*



felipe murillo

Erotikan Plax!

Ekain Ibaguren pailazoari eukitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Nola definituko zenuke zure burua?

Hasieran, antipatikoa eta lotsatia. **Zer izan nahi zenuen handitan?**

Pailazoa.

Zeintzuk dira 'sexualitate' hitza entzutean burura datozkizun hitzak?

Gorputzarekiko kuriositatea eta jolasa.

Zerk jartzen du gustura Ekain Txou?

Publikoarekin ondo pasatzeak.

Eta Ekain?

Niretzat une bat izateak.

Garrantzia al du umoreak maindireen artean?

Bai, garrantzia du, baina lotsak ezkutatzeke txisteak kontatzen hasten zarenera arte.

Nola erakartzen dituzu haurrak?

Askotan, hitzik egin gabe.

Umeen goxamenetik zer dugu ikasteko?

Naturaltasuna.

|| EKAIN IBAGUREN ||



Adina. 21 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Elizkalea.
Lanbidea. Pailazoa.

Magia erabili al duzu inoiz ligatzeko? Zein magia trikimailu da arrakastatsuenak?

Bai, erabili izan dut. Arrakasta gehien txanpona belarririk ateratzeko trukoak izaten du.

Sexu kontuetan, noiz erabiltzen dituzu malabareak?

Pertsona batekin egon nahi duzu-

nean edota ez duzunean nahi harekin egon.

Arrakasta handia lortu duzu. Zerk lagundu dezake sexualitate arrakastatsua izan dadin?

Norbere burua ondo ezagutzeak, zaintzeak eta maitatzeak.

Nor imitatzea atsegin duzu?

|| haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak) ||

|| Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduek, hilabetea: azaroaren 21ean
(16:00-19:00) eta 10ean (10:00-13:00).

Dibertitzen nauen jendea. Inguruko pertsonak, gero eta gehiago.

Zure betaurrekoak moreak al dira?

Nire betaurrekoak kolore guztietakoak dira.

Nori jarriko zenioke sudur gorria?

Norbere buruaz barre egiten dadien edonori.

Aurpegia koloreztatzea gus-tatzen zaizu. Zerekin margotuko zenuke erotika?

Desioarekin, laguntasunarekin eta konfiantzarekin.

Ikuskizun bat?

Kabareta.

Gainditu beharreko beldur bat?

Egunen batean umorea agortzeko beldur naiz.

Kolore bat?

Gorria.

Gustuko duzun txoko bat?

Gauden herrian gaudela, zirkoaren atzeko aldea.*





Bilduma gizentzen

2003an hasi zen argazkiak ateratzen Olatz Altuna eta harrezkero ez da gelditu. Askotariko milaka irudi ditu gordeta bere Flickr kontuan. 📌 [Mailo Oiarzabal](#)

◀ HASIERAKOA.

“Aro digitaleko argazkilaria” dela dio Olatz Altunak (Urrestilla, 1973). Egin zuen urreneko bidaia luzerako erosi zuen lehen argazki kamera, digitala eta konpaktoa, “txikietakoa”. Duela hamabost urte izan zen hori eta Norvegiara egin zuen bidaia. Jostedalbreen glaziarrean ateratako argazki hau izan zen bere bildumako lehendabizikoetakoa.



▲ MENDIZALEA EZ, BAINA..

Hasierako kamerarekin piztu zitzaion zaletasuna lantzen eta areagotzen joan da urteekin Altuna. 2005ean ireki zuen kontua Interneteko Flickr argazkilaritza gunean, eta gaur egun 28.000 irudi ditu han bildumatuta. Denetariko argazkiak ditu, paisaia asko tartean, eta horietako ez gutxi mendi inguruetan ateratakoak. Txango berean egin zituen goiko biak 2011n, Suitzako Alpeetan: “sasoiko bi edadetu erosketak eginda etxera bueltan”, eta Cervino edo Matterhorn mendia Riffelsee lakuaren ertzetik. Ez dela mendizalea dio, “besterik eman arren”.



▲ FESTAK.

Oporraldiak eta bidaiak ez ezik, gertuko argazki asko egiten eta gordetzen ditu Altunak, Urrestillako sanjuanetako hau bezalakoak. "Argazkiak ateratzea gustatzen" zaiola dio, baina bere burua ez du argazkilaritzat. Kamera reflexa, konpaktoa eta telefono mugikorra erabiltzen ditu, "unearen eta beharraren arabera". Flickr-en ez ezik, Instagramen ere ari da osatzen bilduma.

▶ ZUMAIA.

Zumaian egiten du lan urrestildarrak eta kostaldeko herriko txoko asko agertzen dira bere bilduman. Berrienetakoa da ortzadarrari atera zion argazki ikusgarri hau.





▲ **REALAREKIN, ETXEAN ETA EUROPAN.**

Realzalea da Altuna, eta zaletasun horren lekukotzak ere ez dira falta bere irudi bilduma mardulean. Anoetan ez ezik, Donostiako futbol taldeak Europan jokatu dituen hainbat partidatan izana da, eta etxean zein atzerrian, ez du argazkiak ateratzeko aukerarik galdu. Goikoa Manchesterren atera zuen: Shambles Square zaletu txuri-urdinez gainezka ageri da, Realak Uniteden kontra Txapeldunen Ligan jokatu zuen partidaren atarian.*

▲ **ARKITEKTURA, JANARIAK...**

Goian, Rotterdameko (Holanda) Rasmusbrug zubia. Behean, noodle zopa, Shanghain (Txina). Eraikinak eta jakiak ere sarri ateratzen ditu.



Probatu euskaraz

Hil honen bukaera aldera iritsiko da lehen Euskaraldia eta Azpeitian ere buru-belarri, edo aho-belarri, ari dira lanean hura prestatzeko. 📧📧 Mailo Oiarzabal/Maialen Etxaniz

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, milaka euskaldunek parte hartuko dute lehen Euskaraldian. Euskararen erabilera areagotzeko ariketa soziala izango da, aurrez Lasarte-Orian, Agurainen edo Donostiako Egia auzoan gauzatu zituzten egitasmoak oinarri hartuta, Euskal Herri osora zabalduko dena. Erakundeek eta euskaragintzako eragileek bat egin dute Euskaraldia sustatzeko, eta herriz herri ari dira antolatzen herritarrei, norbanakoei, zuzendutako erronka: 11 egun horietan, ahobizi edo belarriprest rola hartuta, euskararen erabilera modu aktiboan areagotzeko konpromisoa da eskatzen dena, ahal den guztiekin eta ahal den guztietan euskaraz egitea, edota euskaraz hitz egiten duenari horretarako bidea ematea. Ahobizi izateko izena ematen dutenek, euskaraz egingo diete euskara ulertzeko gai diren solaskide guztiei; ezezagunei, berriz, lehen hitzak euskaraz, eta ulertzen badute, hurrengoak ere bai. Belarriprestek, berriz, euskaraz hitz egiteko eskatuko diete euskal hiztun guztiei. 11 egun horietan soinean eramateko txapak banatuko dituzte, parte-hartzaileek beren burua ahobizi edo belarriprest gisara identifikatzeko.

Azpeitian Euskaraldia sustatzeko batzordean ari diren lagunekin eta dagoeneko Euskaraldian parte hartzeko izena eman duten zenbait herritarrekin hitz egin du Uztarriak, Euskaraldiaren eta Euskaraldia Azpeitian ere



egiteko arrazoiak eta oinarriak azaltzeko asmoarekin. Edizio hau ixterako, 60.000 lagunek baino gehiagok zuten Euskaraldian parte hartzeko izena emanda, horietatik 600dik gora Azpeitian.

Ohiturak aldatzea

Egitasmoa martxan jarri bezpera arte eman daiteke izena, baina "lehenbailehen" egiteko gonbitea egin dute Azpeitiko batzordekideek, antolakuntzaren eraginkortasuna errazteko. Eneritz Albizu (Azpeitia, 1992), Jon Bikendi (Azpeitia, 1980) eta Aintzane Garmendia (Azpeitia, 1993) Azpeitiko Euskaraldiaren batzordekideak dira. "Milioi bat euskaldun ba omen gara Euskal Herrian, euskaraz dakigunak, alegia, eta erabilera ez da kopuru

horretara gerturatu ere egiten. Orain arte, batik bat euskaldunak sortzera bideratu da lana: D eredu, ikastolak, euskalduntzea eta alfabetatzea... Horretan jarri da arreta, eta konturatu gara euskaldunak sortu, sortu ditugula, baina euskaldun horietako askok beren bizitzako hizkuntza ez dutela euskara, baizik eta gaztelania edo frantsesa", laburbildu du Albizuk Euskaraldia egitera bultzatu duen kezka nagusia. "Zeozterrek huts egiten du, zeozer ez doa ondo. Horregatik dator Euskaraldia orain, erabilera goratze aldera. Euskaldunak sortzen orain arte egin dugun lan hori ez da bukatzen, baina euskaldun kopuru on bat behintzat badago; beraz, orain nahi dena da erabilera igotzea", gaineratu du Bikendik.

Ohiturak aldatzea, euskaldun 'berriak' identifikatzea, konplexuak uxatzea edota euskararen erabilerari zilegitasuna ematea dira, batzordekideen esanetan, Euskaraldiarekin etor daitezkeenak, etortzea nahi luketenenak. "Bi hiztunek euskaraz badakite eta hitz egiteko gai badira, zertarako hitz egin gaztelaniaz? Ohitura aldaketa hori 11 egunetan mantentzen bada, suposatzen da urte guztian zehar jarduteko ere eragin dezakeela, aukera gehiago izango direla", dio Garmendiak. Horrez gain, "ateak irekitzeko bidea" da Euskaraldia Bikendirentzat: "Agian, konturatuko zara euskaraz ez zekiela uste zenuen horrek badakiela euskaraz, eta euskaraz egiteko gai dela. Euskaldunak identifikatzeko balio deza-



Ezkerretik eskubira, Eneritz Albizu, Jon Bikendi eta Aintzane Garmendia, Azpeitiko Euskaraldiaren batzordeko kideak.

keen ariketa ere bada". "Ulertzen duten denen artean euskaraz egitea" da gakoa Albizurentzat, "parean dudanak erdaraz egiten badit ere, nik euskaraz ulertzen didala baldin badaikit, hor euskara erabiltzea, eta norberak erabakitzea zein hizkuntzatan hitz egin nahi duen, zilegitasun osoa emanda euskarari".

Azpeitian ere bai

Azpeitia herri oso euskalduna izanda, zenbait tek pentsa dezake Euskaraldiaren moduko egitasmo batek ez duela aparteko eraginik izango; baina batzordekideek argi daukate baietz, baita azpeitiarren parte-hartzea garrantzitsua dela ere.

"Herrian bertan, konfiantza eta ezagunak daukagun esparru horretan, konturatu gabe ibiltzen gara euskaraz etengabe. Baina hemendik kanpora, gure esparru horretatik kanpora...", hasi da Bikendi. Ildo beretik, Albizuk argi dauka "herriatik kanpora goazenean gurekin eraman beharko genukeela hizkuntza, guretzat naturala delako, herri euskaldun bateko hiztunak garelako eta asko daukagulako

aportatzeko Euskal Herri osoan". Baina herri-tik kanpora joandakoan ez ezik, Euskaraldiarekin herrian bertan ere ohiturak aldatzeko eta euskaldun gehiago identifikatzeko aukera azpimarratu du: "Uste dut nabarmendu behar dela Azpeitian bertan guk uste ez dugula euskaraz dakiten askori hitz egiten diegula gaztelaniaz. Hemen euskara ikasten ari den edonori galdetu, eta normalean esango dizu berari denek erdaraz egiten diotela. Identifikatuta daukagu euskaldunak eta erdaldunak, eta gure ustez erdalduna den horri, erdaraz egiten diogu beti".

Azpeiti ingurutik ateratzean, berriz, oso ohikoa da herrian normalak diren hizkuntza ohiturak aldatzea, "badaezpada"; hiriburuetan, bereziki, saltokietako langileei edo tabernetakoei gaztelaniaz egitea, euskaraz jakingo ote duten pentsatu ere egin gabe. "Eta, berez, ez da ezer kostatzen lehen hitza euskaraz egitea; solaskideak ez badaki euskaraz, jarraitu erdararekin, baina ez gaizki sentitu hasieran euskaraz saiatu izanagatik", dio Albizuk. "Kontzientzia hartzea da, azkene-

an. Aipatu ditugun jarrerak eta 'badaezpada' horiek soberan daude", Garmendiaren iritziz. "Inportantea da geure buruari aitortzea bar-kamenik ez dugula eskatu behar gure hizkuntzan hitz egiteagatik. Ohitura hori ere badugu eta: norbaiti euskaraz egin eta hark 'es que no te entiendo' erantzuten badigu, 'ah, perdona' erantzuten diogu sarri, erdaraz jarraitu aurretik", borobildu du Albizuk.

Ahobizi ala belarriprest, "ganoraz"

Espero zitekeen moduan, askoz gehiago dira Azpeitian ahobizi rolerako izena eman dutenak, belarriprest izateko baino. Batzordekideek, ordea, garbi azaldu dute ahobizi/belarriprest banaketa ez dagoela zertan lotu hizkuntza gaitasunarekin, jarrerarekin eta konpromisoarekin baizik.

"Garrantzitsua da aukeratu den rol hori ganoraz betetzea. Ez du balio, ondo geratzeko edo, ahobizi bezala ematea izena eta gero erdizka egitea; ahobizi erdizka egitea baino, hobe duzu belarriprest izateko izena ematea", laburbildu du Bikendik.



MIREN ILLARRAMENDI

|||Urteak. 41. |||Euskaraldian. Ahoizi. |||Lanbidea. MUko irakaslea eta ikertzailea.

“Ikusten dut umeen artean hasia dagoela erdararako joera bat”

“Kezkak eranginda erabaki nuen Euskaraldian parte hartzea. Urola bailaran ez dugu ikusten arazo handirik daukagunik euskararen erabilerari dagokionez, baina nik lan egiten dudan lekuan eta inguruan egoera erabat ezberdina da. Nahiz eta euskaraz jakin eta hitz egiteko nahikoa gaitasun eduki, ikusten dut hainbat jende ez daukala euskaraz egiteko joerarik; gerora jakin nuen lanean hasi nintzenetik beti gaztelaniaz hitz egin izan didaten batzuek EGA ere badaukatela.

Horregatik iruditu zitzaizkidan oso interesgarria Euskaraldia, joera horiek apurtzen hasteko edo, behinik-behin, mahai gainean jartzeko eta kontzientzia hartzeko modu bat zelako. Erabaki nuen egitasmoak irauten duen egunetan, eta ahal badut aurrerantzean ere bai, erdaraz aritzeko joera duten lankideekin euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea.

Bestetik, ikusten dut hemen ere umeen artean hasia dagoela erdararako joera bat, nik Arrasaten, Bilbon edo Gasteizen ikusten ditudan errealitateetara eramanez gaitzakeena, eta uste dut horren aurrean eragiteko momentu egokia izan daitekeela hau.

Jendea animatuko nuke Euskaraldira, joera horien aurrean modu aktiboan jokatzea”.

MONTSE CARMONA

|||Urteak. 50. |||Euskaraldian. Belarriprest. |||Lanbidea. Ehorzketa zerbitzueta langilea.

“Euskaraz egin arren, batzuetan gaztelaniaz erantzuten didate”

“Euskaraldian ikasturtea hasi zenean animatu gintuzten Euskaraldian izena ematera, eta parte hartzeko prest agertu nintzen. Gainera, Azpeitiko hamaikakoaren parte naiz.

Azpeitian bizitzeko euskara jakitea ezinbestekoa dela irizita hasi nintzen euskara ikasten. Nire lanerako ez dut titulu jakin bat behar. Bai, ordea, komunikatzeko gaitasuna izatea. Behar dudana da harremanak egitea, bezeroekin hitz egitea eta jendeari ulertzea. Beharrak bultzatuta hasi nintzen euskara ikasten. Azpeitian bizita, dudarik gabe behar dut euskara. Lanerako edo harremanak izateko ez ezik, seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko, adibidez.

Egunerokoa, euskaltegian, mintzapraktiketan, bulegoan, tabernan, dendetan... beti euskaraz egiten dut. Baina batzuetan gaztelaniaz erantzuten didate. Badi-rudi euskaldun berriok badaramagula halako txartel bat koptan, erdaldunak garelako dioena.

Beraz, Euskaraldiaren egunetan, belarriprest txapa jantzi eta kalera irtengo naiz, eta jendea irizten ez ezik, euskaraz hitz egitea animatuko naiz. Konpromisoa hartu dut, eta gustura egingo dut”.



IBON GURIDI

|||Urteak. 26. |||Euskaraldian. Ahoizi. |||Lanbidea. Banketxe kudeatzaile komertziala.

“Euskal hiztunak diren bilbotarren jarrerak onerako harritu nau”

“Bilbon egiten dut lan, baina bulegoko zuzendaria Errenteriakoa da jaiotzez, garrantzia handia ematen dio bertako kulturari, eta hark animatu ninduen Euskaraldian parte hartzea. Hasieran, ez nuen arreta berezirik jarri, pintxo poteo batean lagun batek egitasmoaren berri eman zidan arte. Orduan kontutatu nintzen zinez interesgarria dela proiektua.

Lanean hasi nintzen egunean, bezeroei aurreneko hitza euskaraz egiteko agindu zidaten. Pozgarria izan zen, nahiz eta nik bestela ere horrela egingo nien. Egia esan, euskararen erabilerari erreparatuta, jauzi handia dago Azpeitia eta Bilbo artean. Dena den, euskal hiztunak diren bilbotarren jarrerak onerako harritu nau, oso leialak dira hizkuntzarekin. Hau da, joaten diren lekura joanda, aurreneko hitza euskaraz egingo dute, beti. Guk, aldiz, kanpora joaten garenean sarritan hizkuntza aldatzen dugu, eta gaztelaniaz egiten dugu aurreneko hitza, tabernetan edo dendetan, adibidez. Hori akats handia da.

Euskaraldian fin beteko dut dagokidan rola, batez ere Bilboko bulegoan. Uste dut egun politak izango direla. Ederra litzateke bezeroak belarripresten txapa soinean dutela banketxera etortzea”.

KIARA ANGULO

|||Urteak. 17. |||Euskaraldian. Ahoizi. |||Ikasketak. DBHO 2ko ikaslea.

“Euskaraldiak emaitzak emango ditu ariketa serio hartzen badugu”

“Udan izan nuen egitasmoaren berri aurreneko. Beste herri bateko lagun batek galdetu zidan ea banekien Azpeitian Euskaraldia egiteko asmorik zegoen. Orduan ez nekien zer zen. Baina duela bi aste inguru, Uemako kideak eskolara etorri ziren hitzaldi pare bat ematera, azaldu ziguten zer den Euskaraldia eta egitasmoan parte hartzea animatu gintuzten, eta askok eman genuen izena. Horrez gain, urtebete gazteagoak diren ikasleek ikasgeletatik igaro ginen haiei Euskaraldiaren berri emateko. Azkenean, ikasleei ez ezik, irakasleei eman genizkien egitasmoaren inguruko azalpenak. Asko eskertu zuten Euskaraldiaren berri izatea.

Euskaraz bizi garenez, orain arte sekula ez dut parte hartu euskalgintzako ekimenetan. Inoiz ez diot nire buruari galdetu ea zerbait egin behar dugun euskararen alde. Aita euskaldun berria da, eta gurusoak gaztelaniaz hitzketan entzuten nituen arren, etxean beti hitz egin dugu euskaraz.

Euskaraldiak emaitzak emango ditu baldin eta parte-hartzaileok serio hartzen badugu ariketa. Euskaraz ez dakiten herritarrak ikastera animatuko nituzke. Izan ere, Azpeitian, euskaraz ez bada-kizu zenbait egoeratan lekuz kanpo senti zaitezke”.





ANDER UGARTE

|||Urteak. 37. |||Euskaraldian.
Ahobizi. |||Lanbidea. Gida
turistikoa.

“Inportantea da
euskararekiko
konpromisoa hartzea”

ARANTXA OSA

|||Urteak. 51. |||Euskaraldian.
Belarriprest. |||Lanbidea.
Arroabeko eskolako irakaslea.

“hasieratik euskaraz
egiteko aukera ematea
nahiko nuke”

“Kalean eta komunikabideen bidez izan nuen Euskaraldiaren berri. Eskolan ere zerbait egiteko aukera ikusi genuen. Zestoako Euskara teknikariari eskatu genion etortzeko, hark eman zizkigun azalpen guztiak eta parte hartzeko fitxak ere orduantxe bete genituen.

Belarriprest izateko eman dut izena, nahi dudalako jendea niri euskaraz zuzentzea. Konturatu naiz askotan egiten didatela lehen hitza erdaraz, nahiz eta erdaraz hitz egiten ari zaidan pertsona horrek euskaraz jakin; elkarriketaren bukaeran konturatu naiz, sarritan, nire solaskideak euskaraz bazekiela. Belarripresten txapa ipinita, hasieratik euskaraz egiteko aukera ematea nahiko nuke, euskaraz entzutea nahi dudala eta nirekin euskaraz lasai hitz egin dezaketela adieraztea; prest nagoela entzuteko, eta nire kasuan, euskaraz erantzuteko arazorik ere ez dudala.

Euskara bultzatzeko egiten den guztia dago ondo edo arago, bikain. Euskaraldiaren 11 egun horietan, iruditzen zait txapak adierazgarri moduan soinean eramateak eman dezakeela bidea jende gehiagok euskaraz hitz egiteko, txaparen bidez identifikatu egingo baitituzu euskaraz egiteko prest dauden pertsonak. Egitasmo interesgarria da”.

“Euskaraldiaren berri ematen hasi zirenean entzun nuen zerbait egin asmo zutenaz, baina egia esan, zehaztasun gehiegi ez nitzuten ezagutzen. Urrian, herrian izena emateko mahaiak jartzen hasi nintzenenean hurbildu nintzen haietako batera; han azaldu zidaten guztia, eta izena ematea erabaki nuen.

Abenduaren 3ko Euskararen Egunaren bueltan urtero antolatzen dituzte ekitaldiak, baina Euskaraldiarena bereziki positiboa eta interesgarria iruditzen zait. Nahiz eta Azpeitian munduko herri euskaldunenean bizi garen, inportantea da euskararekiko konpromisoa hartzea; Azpeititik kanpo ere euskararen erabilerari bultzada bat ematea, lehendabiziko hitza euskaraz eginez, adibidez. Izan ere, aurrean dugunak euskaraz ba ote dakien ez dakigunean, askotan jotzen dugu erdarara hasieratik. Euskaraldian parte hartzerakoan hartzen duzun konpromisoarekin, zeure burua behartu egiten duzu, nolabait, jarraera eta joera horiek aldatzera; eta hamaika egun horietan egingadako ahalegina urte osoan mantentzera ere eramango zaitu, igoal.

Bestalde, Azpeitian bertan euskaraz egiteko gai direla uste ez genuenak ezagutu ditzakegu”.



ANE GURRUTXAGA

|||Urteak. 20. |||Euskaraldian.
Ahobizi. |||Ikasketak.
Enpresaritzita ikaslea.

“geLakide asko
erdaraz egiten dute
beraien artean”

MASBOOT MOHAMMAD

|||Urteak. 17. |||Euskaraldian.
Belarriprest. |||Ikasketak.
Euskara ikaslea.

“uste dut euskaraldiak
harremanak egiten
lagundu diezakedala”

“Mintzapraktikako kideei esker jaso nuen egitasmoaren berri, eta izena ematera animatu ninduten. Urtebete daramat Azpeitian bizitzen. Aitarekin eta anaiarekin etorri nintzen hona, Pakistandik. Iritsi nintzenean, gure herrialdean, Kaxmirren, hitz egiten diren hizkuntzak nekizkien, urdua eta pasharia, eta ingelesa ere bai. Ez, ordea, gaztelania eta euskara. Horregatik, euskara ikasten hasi nintzen berehala.

Ez naiz eskolara joaten, baina euskara ikaslea naiz euskaltegian. Sanjuandegin eskaintzen dituzten mintzapraktika saioetara ere joaten naiz astean behin. Han, adin ezberdineko beste bost lagunekin aritzen naiz euskaraz solasean. Denetarikoa gaiak izaten ditugu hizpide, eta gustura joaten naiz saioetara.

Uste dut Euskaraldiak harremanak egiten lagundu diezakedala. Etxekoekin, euskaltegikoekin edo mintzapraktika saioetan ezagututako lagunekin bakarrik dut harremana gaur egun. Uste dut euskaraz ez jakiteak ere zailtzen duela harremanak egiteko bidea. Horregatik, Azpeitian bizi diren pakistandarrekin elkartzten naiz kriketean ibiltzeko. Hala ere, asko gustatuko litzaidake lagun euskaldunak egitea, eta haiekin kalera irtetea”.

“Donostian ikasten dut. Kuadrillakoei entzunda-eta banuen Euskaraldiaren berri, baina unibertsitatean eman nuen izena. Hango Euskaraldiaren batzordean dabilen irakasle batek azaldu zigun egitasmoa klasean, parte hartzera animatu gintuen, eta handik gutxira eman nuen izena.

Azpeitian ez zait burutik pasatzen lehen hitza euskaraz ez egitea; solaskidea lehendik ezagutzen badut eta euskaraz ez dakiel baldin badakit bakarrik hasiko naiz erdaraz. Donostian, ordea... Euskaraz dakien gero eta jende gehiago aurkitzen duzu, eta ni saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten; baina ezagutzen ez dudana bat inguruko guztiekin erdaraz ari dela ikusten badut, egia da neuk ere erdaraz egiten diodala.

Ikasketak euskaraz ari naiz egiten, ikaskide eta irakasle guztiekin euskaraz egiten dut, baina gelakide askok erdaraz egiten dute beraien artean; irakasleei erdaraz zuzentzen zaienik ere bada! Azpeiti inguruko ikaskideekin ibiltzen naiz gehiena, geure artean beti egiten dugu euskaraz. Erdaraz aritzen diren gelakideek ere euskaraz egiten dute gurekin, beraien artean ez bezala. Deigarria da egoera guretzat, askotan hitz egin dugu horretaz. Egundoko pena ematen dit”.*



Atarikoan xehetasunak

Nola eman daiteke izena Euskaraldian? Noiz eta nola banatuko dituzte txapak? Zer hitzordu gelditzen dira Azpeitian azaroaren 23ra bitartean? Hemen, jakin beharreko batzuk.

Euskaraldia prestatzeko azken txanpak eta egitasmoaren hasierak bat egingo dute azaroan. Izen-emateak zabalik jarraitzen du, baina dagoeneko izendatu ditu Azpeitiko batzordeak herriko ahobiziei eta belarripres-tei dagozkien txapak banatzeko datak. Hilaren 23tik abenduaren 3ra bitarteko egunetan bakoitzari betetzea egokituko zaion rolaz eta aritzeko girotze saioak ere antolatu dituzte, eta Euskaraldiaren egunetan ere izango dira egitasmoaren bueltako ekitaldiak herrian.

IZEN-EMATEA.

Internetez. 16 urtetik gorako herritarrek dute Euskaraldian parte hartzeko aukera, ahobizi ala belarriprest rola aukeratuta. Interneten, Euskaraldiaren webgunean eman daiteke izena, izenematea.euskaraldia.eus orrialdean sartuta.

Mahaietan. Urriaren erdialdean hasita, Azpeitian bertan eta aurrez aurre izena emateko aukera eskaini du herriko Euskaraldiaren batzordeak, izenemate mahaiak kalera aterata. Azaroan, hilaren 3an plazan jarriko dute mahaia, 12:00etatik 13:30era; eta hilaren 9an, berriz, Urrestillan, 18:00etatik 20:00etara. Horiez gain, herriko ikastetxeetan ere urrian hasi ziren izena emateko mahaiak jartzen, eta azaroan ere jarraituko dute.

TXAPAK JASOTZEKO.

Lau egun. Azaroaren 19an, 20an, 21 ean eta 22an banatuko dituzte Azpeitian izena eman



Azpeitiko bi hamaikakoak, Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldian.

duten ahobizientzako eta belarriprestentzako txapak, Azoka Plazan. Lau egun horietan, 18:30etik 20:00etara jarriko dute txapak banatzeko postua. **Joan ezin dutenentzat.** Izendatutako egun horietan norbaitek ezin badu txapa jasotzera joan, beste norbait bidali dezake hura jasotzera.

GIROTZE SAIOAK.

Hiru data aukeran. Azaroaren 5ean (astelehena), 13an (astearte) eta 21 ean (asteazkena) egingo dituzte Azpeitian Euskaraldiko girotze saioak. Ordubeteko iraupena izango dute, 19:00etatik 20:00etara.

Saioen xedea. Girotze saioak Azpeitiko ahobizientzat eta belarriprestentzat antolatu dituzte. Saio horietan azalduko dute, oso arin eta modu praktikoan, zer konpromiso hartzen dituzten herritarrek Euskaraldian rol horiek hautatzean, eta zer egoera tokatuko zaizkien. Horrez gain, egoera horietan eroso sentitzeko

aholkuak emango dizkiete, eta iritziak konpartitzeko aukera ere izango dute saioetan parte hartzen dutenek.

Parte-hartzea aurrez baieztatzea komeni. Herritar guztiak animatu nahi ditu Azpeitiko Euskaraldiaren batzordeak tailer horietan parte hartzera, guztientzat aberasgarria izango delakoan. Eskertuko lukete, hori bai, bertaratzeko asmoa dutenek

aurrez mezu bat bidaltzea e-posta helbide honetara: 'azpeitia@euskaraldia.eus'.

Tailer bera hiru egunetan.

Antolatzaileek aurreratu dute tailer bera emango dutela hiru egunetan, baina saio bat baino gehiago eskaini nahi izan dituzte, herritarrek aukera izan dezaten beren egutegira moldatzeko.

ATXIKIMENDUAK.

Eragileak, taldeak, erakundeak... Norbanakoei zuzenduta dago Euskaraldia, baina egitasmoari babesa adierazi diote hainbat eragilek, erakundeak eta taldek. Azpeitian, besteak beste, Udalak eta ikastetxe guztiek egin dute bat Euskaraldiarekin, eta datozen asteetan gauza bera egingo dute beste eragile askok ere, merkatariek edota kirol taldeak tartean direla.

EKITALDIAK.

Euskaraldiaren kontzertua.

Euskaraldiak iraungo duen 11 egunetan ere izango da egitasmoaren oihartzuna zabaltzeko ekitaldirik Azpeitian. Horrela, Juan Antxieta musika eskolakoek euskal musikan eta kantutegian oinarritutako kontzertua eskainiko dute, eta hitzaldi bat ere antolatzen ari dira. Bi ekitaldion egunak zehazteke daude.*



Kantujira

Hi, zer? Donostiyan bai ta Azpeitiyan ez? Han ikusi nahi haut, e!”

Hileko hirugarren zapatua. Donostian kantujira. Fermin Calbeton kalean hasiera. Ni han, beste ehunen bat lagunekin kantari.

“Donostian bai eta Azpeitian ez” aurpegi-ratu zidana Marije azpeitiarra zen. Arrazoi zuen. Izan ere, Donostiara joaten nintzen kantujirara eta Azpeitikoa ezezaguna zitzaidan. Baina, tira, trantze estu hartatik irteteagatik edo, arin erantzun nion: “Beno, jubilatzen naizenean –handik hilabete gutxira– hasiko naun entseguetara joaten”. Eta hala ezagutu nuen Azpeitiko kantujira taldea. Hasieran, gutxi batzuk. Pittinka, ordea, taldea kopuruz sendotzen ari da. Poztekoa. Bistakoa da Azpeitiko kaleetan gero eta ezagunagoa dela taldearen presentzia.

Gero eta herri gehiagotan ari dira kantujira taldeak antolatzen. *Euskaldunon Egunkaria*-ren zorigaitzoko itxierak haserrearazita egin zuten kantujiraren lehen urratsa Donostiako kaleetan. Geroztik, hainbat herritan zabaldu da mugimendua. Ez bakarrik Gipuzkoan, Euskal Herri osoan baizik. Kanta herrikoia pizkundea ote da fenomeno hau? Taldeen ezaugarri bat, ordea, ezin utzi aipatu gabe: deigarria da kideen adina. Dezentea, edo... Donostiara joaten hasi nintzenean, hala esaten zidan lagun batek: “Zer, taldearen batez besteko adina arintzera al hator?”. Ni gazteenetakoa taldean, eta 60 urte konplituak...

Hileko hirugarren zapatua. Donostian kantujira. Fermin Calbeton kalean hasiera. Ni han, beste ehunen bat lagunekin kantari.

‘Perosiren meza’ hiru ahotsetara

Zenbat aldatu den –galdu, esango nuke– taldean abesteko ohitura. 60ko hamarkadaz ari natzaizue, gure ume garaian bizitakoaz. Nuarben hiru taberna ziren: Artabera, Korea eta Ximonene. Bada, bazkari edo afari ondo-renak kantuz bukatzea zen ohikoa hiruretan. Elizako korua gai zen *Perosiren meza* fama-



||||||| **luis gurrutxaga** |||||

||| Bistakoa da Azpeitiko kaleetan gero eta ezagunagoa dela kantujira taldearen presentzia

tua hiru ahotsetara kantatzeko, alajainetan. Eta ibilaldietan zer esanik ez, batik bat pirin-pirin jarriz gero. Baina gizarteko ohiturak hainbeste aldatu, eraldatu, galdu dira arlo guztietan...

Gogoratzen dut sokatira taldearekin atzerri egiten genituen bidaietan, gure euskalduntasuna azaldu nahian edo, *Boga, boga; Dira, dira; Pastelero* eta abar abesten hasten ginela... Baina hasi bakarrik, ozta-ozta iristen baiken bigarren paragrafoa. Eta orduan, elkarri esaten genion: “Hi, hurrengo urtien kantu zaharrak ikixita, e!”. Kaka zaharra, hurrengoan ere berdin. Gozamena da, ordea, Iparraldera joatea eta hango ahots harmoniatsu eta sendoak entzutea. Inbidia sanoa sentitzen dugu, herri xumeak abesteko tradizioa zein dotore mantendu duen ikustean.

Beno, lagun azpeitiar, jakin ezazu gure herrian aukera duzula taldean kantuan aritzeko. Konpromisorik eta konplexurik gabe. Denak onartuak izango zarete. Ahots goxoa ala zarkarra duena; kantuan aditua ala berria; ‘belarri’ egokia ala trakets samarra duena. Lagun berriak egiteko modua duzu. Agian, ezezagunak dituzun inguruko txokoak ezagutzeko parada izango duzu eta mokadu goxoak ere egingo dituzu. Kantu zaharrak gogoratze eta arrotzak zaizkizunak ezagutzeko aukera. Hori dena duzu zain.*



Arrauna pasio

Azpeitian, historikoki, ez da arraunerako tradizioirik, baina asko dira azken urteetan kirol horretan aritu diren herritarrak: lehorreko arraunlariak dira. 📌📍 Ane Olaizola

Badira herriak zenbait kirolekin tradizioz lotura izan dutenak, eta horietako asko ezagun dira, esterako, pilotan edo saskibaloian oihartzun handia bereganatu dutelako. Azpeitiak eta arraunak ez daukate elkarren arteko lotura historikorik, baina itsasoak eta jarduera horrek duten xarmak erakarrita, azken urteetan ohikoa bilakatu da traineruak lehorreko arraunlariekin osatzea.

Horietako bat da Joxe Felix Zubizarreta. Kirolari sutsua da 45 urteko azpeitiarra, eta bizitzaren erdia arrunean eman du. Lagun batek animatuta, 23 urte zituela hasi zen Zumaiako taldean; "beherala" katigatu zen arraunean. "Probatu nuenean, ikaragarriko beharra sentitu nuen horretan jarraitzeko. Hasieratik gustatu zitzaidan arrauna", esan du. Dena den, hasierako urteak "gogorrak"

||| PATROI ONENA |||||

||| Arraunari estu lotuta bizi da Ander Etxegoien Azpeitiko bizilaguna, eta jauzi handia egin zuen pasa den denboraldian. Izan ere, San Pedro traineruarekin debuta egitearekin batera, Eusko Tren Ligako patroio onenaren saria jaso zuen joan den irailean. Egun San Pedrorekin lehiatzen bada ere, 2010az geroztik, Getariako - bere jaioterria- kluba izan du harrobi.



Maren Caballero, Amane Jimenez eta Leire Ibar, Zumaiako arraunlariak.

izan zirela gogoratzen du: “Kirol ezezaguna zen niretzat, eta teknikarik ez nuen. Pertsona askok koordinatu behar dute, eta ni inoiz ez nintzen aritu horrenbeste lagunekin batera kirola egiten”. Lehenengo urteak Zumaiako klubean igaro ondoren, Oriokora egin zuen salto azpeitiarrak, eta klub horietan lortu zituen, besteak beste, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak. Ondo gogoan du, gainera, 2001 ean Kontxako Banderarako txartela lortu zuten unea: “Zumaiako taldean nengoen orduan, eta Kontxako Banderara sailkatu ginela esan zidatenean, izugarritzko poza sentitu nuen. Zumaia han lehiatu gabe zegoen urte askoan, eta zumaiarrek asko eman zuten Kontxako Bandera hartan. Zumaia azkenekoz Kontxan lehiatu zenean, lehorreko arraunlari asko zeuden taldean, eta zentzu horretan, berezia izan zen niretzat ere”.

“Bihozkadek” eraginda hartu ohi diti erabakiak Zubizarretak, eta horrelaxe utzi zuen arrauna 30 urte zituenean. Aizkoran murgildu zen orduan, eta hamabi urteko etapa amaituta, duela bi urte, arraunera itzuli zen berriz azpeitiarra; orduan ere, barruko harrak bultzatuta. “Kirol batek ez badit ezer ematen, utzi egiten dut”. Azpeitiarrak estimu berezia dio Zumaiako klubari, han hasi baitzuen arraun ibilbidea. Beraz, joan den denboraldia Getarian egin ondoren, datorrena Zumaiakoarekin egingo du, beteranoen mailan: “Beteranoetan ez dago presiorik. Arrauna gustuko dugunok eta lehen ibilitakook osatzen dugu taldea, eta gozatzeraz joaten gara. Orain, nahiago dut modu horretan ibiltzea”.

Lotura handiko kirola

Arraunlari beteranoaren bestaldean daude Amane Jimenez, Leire Ibar eta Maren Caballero azpeitiarrak. Duela bi urte, “zerbait berria probatze aldera” hasi ziren Zumaian arraunean, hango kluba baitzuten gertukoen, eta gazte horiei ere hasieratik gustatu zitzaizkien arrauna. Joan den denboraldia kadeteen mailan egin zuten Ibarrek eta Caballerok, eta Jimenez infantiletan lehiatu zen; aurten, berriz, hiru gazteak kadeteetan hasiko dute denboraldia.

Dagoeneko hasi dira urtarrilean ekingo dioten sasoi berria prestatzen, eta oraingoz, astean hiru egunetan egiten dituzte entrenamenduak. “Bi egunetan uretara ateratzen gara, eta hirugarrenean gimnasioan egiten dugu saioa”, esan du Jimenezek. Haren arabera, “konpromiso askoko” kirola da arrauna, derrigorrezkoa izaten baitute entrenamen-



Joxe Felix Zubizarreta.

duetara joatea. Hain zuzen ere, arrauna ikasketekin uztartzea da zailena egiten zaiena, batez ere azterketa garaian daudenean: “Ahal dugun lekutik ateratzen dugu denbora. Izan ere, autobusez joaten gara Zumaiara, eta arratsalde osoa hartzen digu entrenamenduetarako joan-etorriak. Askotan, autobusean hartzen dugu ikasteko tartea”, esan du Caballerok.

Lehenengo eta oraingo begiekin

Arraun jardunari dagokionez, antzekotasun nahiz desberdintasun ugari dauzkate Zubizarreta beteranoak eta hiru arraunlari gazteek: urteak maila nagusian lehiatzen aritu ondoren, beteranoetara egin du berri jauzi Zubizarretak, eta “osasanak lagundu arte” maila horretan lehiatuko da; Ibarrek eta Caballerok, berriz, traineruetan egingo dute debuta hurrengo denboraldian –Jimenezek kadeteetan jarraituko du–. Hala dio Ibarrek: “Horrek urduritasun pixka bat sortzen digu, hurrengo urtetik aurrera presio gehiago izango dugulako”. Esperientzia hartzen ari dira gazteak, baina Zubizarretak arrauna nola aldatu den ikusi du azken urteetan. Ildo horretan, adierazi du, lehene bezala, egun fitxaketen bidez funtzionatzen dutela klub askok. “Duela urte batzuk arte, herriko eta inguruko arraunlariak osatzen zuten taldea, baina orain kanpo-

ko arraunlariak ekartzen dituzte. Batez ere klub handiek egiten dute hori, diru gehien horiek dutelako. Beraz, talde handiak beti egongo dira maila gorenean; besteak, berriz, horien atzetik ibiliko dira beti”.

Gazteek, berriz, emakumezkoen arraunari egin diote so, eta adierazi dute, azken urteetan parekidetasunera bidean pauso batzuk eman badituzte ere, oraindik badagoela zer egin. “Askotan, emakumezkoak distantzia txikiagoetan lehiatzen dira, eta hori aldatu beharra dago. Traineru eta entrenatzaile onenak ere gizonetakoek edukitzen dituzte, hau da, indar gehiago jartzen da haiengan; haiek dute lehentasuna”.

Lauak dira lehorreko arraunlariak, eta ingurukoak “harritu” izan dira duten zaletasunarekin. Hala ere, azpeitiarren jarduna dirudiena baino ohikoagoa dela azpimarratu dute. “Zumaiako taldean, esaterako, zumaiarrek gutxiengo dira”, dio Ibarrek.

“Gogorra bezain lotua” da arrauna, baina taldean aritzeak bidea asko errazten duela uste dute. “Niri poza eta lagun asko eman dizkit arraunak”, adierazi du Zubizarretak. Izan ere, arraunean aurrera jarraitzeko taldean giro ona eta ilusioa izatea ezinbestekoak dela uste dute, sufrimenduak sufrimendu, “ederra” delako: “Kirola taldean eta itsasoan egite hutsak asko asebetetzen du”.*

Samartinak ate joka

Azaroarekin, San Martin festak iritsiko dira Lasaoa, Errebalera eta San Martin egoitzara. Urtero legez, askotariko ekitaldiak izango dira batean nahiz bestean hilaren 5etik 11ra bitartean. 📁 Uztarrria

Udazkena iristearekin eta azaro sartzearekin iritsiko dira San Martin jaiak Euskal Herriko hainbat txokotara, eta Azepeitia ez da salbuespena izango. Izan ere, azaroaren 9tik 11ra bitartean samartinak ospatuko dituzte Lasaoan eta Bustinzuriko Errebalean.

Lasaon txupinazoarekin hasiko dituzte festak, azaroaren 9an, eta askotariko ekitaldiak izango dira igandera bitartean. Besteak beste, bertsolarik, trikivilariak, mezak, otorduak, jolasak eta abar izango dira hiru egunetan zehar.

Bustinzuriko Errebalean, berriz, ostiral gauean murgilduko dira festetan; izan ere, mus txapelketa azkarra egingo dute egun horretan kaleko bi tabernetan. Festetako egun handia larunbattea izango da. Eguna osoan zehar ekintza ugari egingo dute, hala

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** San Martin festak.

||| **Egunak.** Azaroaren 9an, 10ean eta 11n Lasaoan, eta 9an eta 10ean Bustinzuriko Errebalean.

||| **Tokia.** Lasaoan eta Bustinzuriko Errebalean.

||| **Antolatzailea.** Lasaoko eta Errebaleko herritarrak.

nola jolasak, bazkaria eta sokamuturra izango dira.

San Martin astea

San Martin egoitzan aste osoko ospakizunak egingo dituzte azaroaren 5etik 11ra bitartean. Urteroko legez, musika, jolas eta jokorako tartea izango dute egoiliarrek, eta bisitak ere jasoko dituzte. Egoiliarrek familiako kideekin ospatuko dute San Martin eguna, hiaren 11n.

||| SAN MARTIN JAIAK |||||

3 eguneko festak. Ostiraletik igandera ospatuko dituzte jaiak Lasaoan, eta askotariko ekitaldiak izango dira bertan.

7 egun. San Martin egoitzan aste bete ekitaldi izango dute.*



Iazko Lasaoko samartinetako irudia. ||| Uztarrria

||| BESTERIK |||||

1 Grises eta Silence taldeen kontzertuak

Zestoako eta Azkoitiko taldeek kontzertu bana eskainiko dute. ||| **Eguna.** Azaroak 10 (zapatua). ||| **Ordua.** 23:00 ||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. ||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

2 Ruper Ordorika, bakarka Bakarkako kontzertuan disko berria aurkeztuko du.

||| **Eguna.** Azaroak 25 (igandea). ||| **Ordua.** 19:00. ||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. ||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

3 Herritartasun globala hizpide Herritartasun Eskolen barruan izango da 'Herritartasun globala' solasaldia.

||| **Eguna.** Hilak 27 (asteartea). ||| **Ordua.** 19:00. ||| **Tokia.** Loiola zentroa. ||| **Antolatzailea.** Loiolako Santutegia.

4 'Volar' filma emango dute

Emakunde ekoiztutako eta Bertha Gaztelumendik zuzendutako lana da. ||| **Eguna.** Azaroak 28 (astelehena). ||| **Ordua.** 18:00. ||| **Tokia.** Emakumeen Txokoa. ||| **Antolatzailea.** Emakumeen Txokoa.*

||| Azepeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda



JAPONIA

Martxoak 12tik 24ra

Tokyo - Hakone - Matsumoto -
Takayama - Shirakawago - Kana-
zawa - Kyoto - Fushimi - Inari -
Nara


**2019
Taldean**
Irteterra Azpeititik - Bidalat
autolatua - Gida laguna bidat
uson zehar



Sizilia Amalfi Kostaldea

Maiatzean

10 egunetako ibilbidea pentsio
osonari. Napoles, Capri, Anacapri,
Palermo, Siracusa, Monreale,
Cefalù, eta abar bixitalzeko aukera.



JERUSALEM JORDANIA

Aste Santuak

10 egunetako ibilbidea pentsio
osonari. Jerusalem, Petra, Wadi Rum
desertua eta bukatzeko Aqabako
Itxaso Gorria ezaguteko aukera.



EGIPTO


Urrian

Guizako piramideak edo
Luxor eta Abu Simbeleko
tenpluak besterik beste.

Halcon
bidaiak

Jose de Artetxe Kalea
14-16
AZPEITIA
913 810673
mlazkano@halcon-viajes.es

||| **HITZ GEZIDUNAK** ||||||||||||

	Izena		Barakaldoko		Zuhaitz mota		Metalezko soka		Suari dariona
	Pl. idazteko tresna		Pl. gai itsaskorra		Gehiagi, sobera		Materiaz-koa		
	Narrote								
	Botaz, jautiz								
Ganibetak		Borua	Borroka kirola						
Ekialdeko tenpluak		Deitura	Bizkaieraz, du						
					Saturnoren satelitea				Antzinako Erromako hizkuntza
					Nasa				
Jarleku erosoak						Kontso-nantea		50	
Ale, bihi						Potasioa		Oroitzapen	
				Segada					
			Gipuzkoa-ko herria						
Neuk			Ernel			Argi, hitz elkarketan			
Udarea			Orgaren erdian			Ezetzatze			
					Gizon izena				
					Kontso-nantea				
Modu atzizkia			Baztango herria						

 **Egilea:**
Luma

* Futbolari azpeitiarra

||| **SUDOKUA** ||||||||||||

		8	4			1	2	
1			3			6		
2			6				9	
5				4				
	7						4	
				1				2
	4				5			3
		5			4			6
	8	2			9	4		



Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Gure herriko auzoa, Urraki mendiaren magalean. 2. Lorez betea. 3. Errepikatuz, ugatz. Joan gaitezen. 4. Hondoak. Eduki. 5. Euskal Herriko sindikatu nagusiaren siglak. Kasik. Gure eskualde bereko udalerria. 6. Beldurtiak, izutiak. 7. Bokala. Edo. Indioaren ikur kimikoa. Bokala. 8. Norat atzizkia. Kenketaren ikurraren izena. Estrontzioa balio du. 9. Nafarroako udalerria, Iruñeko merindadean. Detektagailu mota. 10. Azal mehea. Nasa.

Goitik behera

1. Eltzean, barazkiekin eta kidekoekin prestatzen den janaria. Gure herriko auzo hauxe da inaziotar biderean abiapuntua. Mina adierazteko interjekzioa. 3. Txakur. Latza, zakarra. 4. Belarra mozteko lanabesa. Alkoholen bukaeran. Aluminioaren ikur kimikoa. 5. Itsas arrainak, jateko onak. Bokala. 6. Ate, hitz elkartzeetan. Kanpo, landa. Erbioa balio du. 7. Ez geza. Ohorezko hitz emateak. 8. Eraikin bateko sarrera zaintzen duen pertsona. Dago. 9. Behizaina. Putre. 10. Musika nota, eskalan seigarrena. Zenbait maskorren barrualdean eratzen den gai zuri gogor eta distiratsua.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1									■	
2										
3			■							■
4						■				
5				■			■			
6										
7		■				■			■	
8				■				■		
9					■					
10						■				

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Azaroak 26 (astelehena) |||NORABIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

N	I	V	Z	T	R	V	G	●	I	K	●
I	O	L	E	●	A	R	A	D	A	V	M
T	A	R	●	I	D	A	●	K	I	N	●
A	O	I	K	V	L	●	U	A	R	A	G
L	●	R	●	K	A	K	A	T	U	B	●
●	A	E	A	●	K	A	D	O	G	A	P
A	E	A	T	A	R	A	K	●	B	●	●
E	T	A	M	A	R	A	N	●			
K	A	K	U	M	A	K	B	O	L	A	L
●	K	●	Z	●	B	●	J	●			

SUDOKUA

7	5	4	9	6	9	1	2	8	3
6	9	8	6	3	4	9	2	1	7
3	2	1	3	7	5	2	1	3	9
2	3	2	1	8	7	3	2	4	6
4	1	6	5	4	1	9	2	6	5
9	6	9	5	2	1	7	4	3	8
4	1	3	9	4	8	1	3	9	4
8	7	8	6	8	1	3	9	4	1
1	9	4	3	5	2	6	7	8	3
6	3	8	4	9	7	1	2	5	6

|||UZTARRIAREN URRIKO LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA



Arantxa Galarraga Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 210. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damaso Azkue 6

ELKARRIZKETA Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria

“bertsotarako ondo nengoela hartu nahi nuen erretiroa”

Jose Luis Gorrotxategi (Osintxu, Bergara, 1945) duela egun gutxi egin zuen azken plaza. 55 urte bertsok buruan eta ahoan ibili ostean, plazetako erretiroa hartu du.

Bergarako frontoia, 1963ko martxoaren 3a. Zer datorkizu gogora?

Urte hartan soldadu zihoazen gazteek jaialdi bat antolatu zuten. Ni sei bat hilabete lehenago nengoeren bertsotan hasita, eta lankide batek esan zidan kantatuko al nuen. Noizbaiten probatu behar ko nuela pentsatuta, baiezkoa eman nion, eta hala aritu nintzen Benito Irasuegiarekin eta Martin Egileorrekina batera. 55 urte pasatu dira dagoeneko, baina oroitzapen ona dut, oso lasai joan nintzen. Plazan ez naiz urduri jarri izan. Txapelketetan ere saioa bera baino txarragoa izaten zen bezperako eguna.

Beste asmorik gabe hasi eta punta-puntako bertsolariekin abestu duzu urteetan.

Basarriekin, Uztapiderekin, Xalbadorrekin, Mattinekin, Xanpuneekin, Enbeitarekin... Gehienekin abestu dut.



Jose Luis Gorrotxategi. Julene Frantzesena

Osintxuarra izatez, Landetako Unibertsitateko kide izan zara. Ondo hartu al zintuzten?

Oso ondo. Azpeitira lehen aldiz Loiolako Herri Irratiko bertsolari txapelketaren finalera etorri nintzen, anaiarekin. 17 bat urte nituen, eta bizikletan etorri ginene biok. Harritu egin nintzen Azpeitian denek euskaraz hitz egiten zutelatik ikustean; izan ere, orduan Bergaran gaztelaniaz aritzeko joera zegoen. Herrian buelta eman genuen saioa bukatzean, eta neure artean pentsatzen nuen: “Joe, hau dek herria. Zezen-plaza, Loiola aldea. Bai elegantea. Ederra izango litzateke hemen bizitzea”. Eta begira!

Xalbador Egunean, Urepelen, jakinarazi zenuen plazak utziko zenituela. Zergatik han?

Azken pare bat urtean buruan nebilkien plazak utzeko ideia; izan ere, bertsotarako ondo nengoela hartu nahi nuen erretiroa. Beldurra ematen zidan jaialdian ezinezko ibiltzeko, horrek saioen kalitatea jaitsi egiten duelako. Urepletik deitu zidatenean, ez nuen bi aldiz pentsatu, eta erabaki nuen hura izango zela azkena. Zergatik? Xalbadorri diodan miresmenagatik eta errespetuagatik, eta Iparraldean zelako eta hara joaten dena benetan bertsozalea delako.*

*Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK

1886

Marrazki gau eskola. Herrian marrazki linealaren gau eskola zabaldu zuten.

1976

Basazabal, publiko.

Espainiako Gobernuko Ministroen Kontseiluak erabilgarri publikotzat deklaratu zuten Basazabal etxea.

2016

Lapatxen itxiera.

Lapatx zaborteziaren atea itxi zituzten, hura ireki eta 28 urtera.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK



Xanti Rodriguezen elkarrizketa.*

**KIMU BAT
GARDEN**

Animationtzako denda berria

**Gure etxeko lagun
iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako
eskaintza zabala!**

Urrestilla bidea, 7/g. AZPEITIA

Tupper egokia

Etxetik kanpo jatea tokatzen zaizunean, ordua prestatze hutsak burukomina sortzen al dizu?

Modu orekatuan eta osasuntsuan, elikagai gozokak jatea nahi izaten dugu, eta antolatzea da gakoa. Tupper on batean barazkiek izan behar dute nagusitasuna, baina ohikoa da horiek ez jartzea, ontzian ez direlako sartzen edo entsalada umeldu egiten delako. Aitzakiak alde batera utzi behar dira; izan ere, barazkiek izan behar dute osagai nagusi. Entsaladaz gain, aukera ugari ditugu; adibidez, lehenago prestatu eta izoztu ditugun barazkiak –pistoak, eskalibada, txanpinoiak, tomate saltsa, barazki krema...–.

Zereal integralek eta tuberkuluek osatu behar dute tupper-aren gainerako zatia; kantitate handiak egos ditzakezu, eta hozkailuan gorde. Arroza edo pasta barazkiekin nahastea aukera erraza izan ohi da, baina proteinekin ezin dugu ahaztu. Esaterako, lekaleak berehala egiten dira presio eltzean. Horiek barazkiekin lagunduta, plater egokiak osa daitezke. Bestalde, animalia jatorriko proteinak –arrautza, esnekiak, arraina eta haragia– ere baliatu daitezke tupper-a osatzeko. Postrerako fruta, eta edateko ura.

Ondo jan nahi duenak baliabideak aurkitzen ditu, eta ez duenak nahi aitzakiak!*



aitziber aizpuru

JAVIER GURRUTXAGA Higiezin agentziako jabea



1. Etxebizitzak, erosi ala alokatu?

Askok nahi dute alokatu, ia eskaintzarik ez dago, ordea.

2. Alokairua arazo bihurtu al da?

Azkenaldian, handia.

3. Nongo etxeak eskatzen dira gehien?

Esklaba ingurukoak ondo saldu dira. Azkenaldian, Ildefonso Gurrutxaga eremuak ere ospea hartu du.

4. Jendeak nolako etxeak nahi ditu?

Balkoidunak, argitsuak eta hiru logeladunak.

5. Krisia...?

Luze joan da.

6. Azpeitian metro koadroa, zenbatean?

Lekuaren edo etxearen araberakoa da hori.

7. Lehengora itzuliko al gara?

Ez, ez ote gara itzuliko. *

Ane Olaizola

IRENE ALTUNA
LORAZENDA
Loiolu Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtanacorda.com

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Araoa, 5 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 10 40
Ekain
Larmelak, 943 15 10 40
ALBAITARI KLINIKA

Alar
merceria
Lariolako Traxo Tintxidea, 9
Tel: 688 81 87 78

EREGI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA
tel.: 943 08 06 88
www.eregi.eus

uba
KONSUMITZITZA
Kontsumitzailea
Itxarola
Laboratzailea
Santxus
Gestioari buruz
Finanzen administrazioa
Gestioa inmobiliarria
Tel: 943 151 222 Fax: 943 151 222
Lepoan: Kalea, 41 • 48901 AZKOITIA

KIRURI
K
JATETXEA
Loiola hiribide, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 00 88
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA DISEÑU
ESKOLA ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Antonio kalea, 3
943 81 28 08
ar@adibizkaia.com
Matrikula arte osoan zabalik

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Arce, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Iñaki Oñate, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Soka, iraunkor

Kucherenko duela 18 urte etorri zen lehen aldiz Ukrainatik Azpeitira, Martijaren etxera. Egun, bertan bizi da. 📝🎧 Mireia Galarza



2

000. urteko ekaina. Orduantxe elkartu ziren Kontxita Martijaren (Arroa Goia, Zestoa, 1947) eta Vladys Kucherenkoren (Ivankiv, Ukraina, 1994) bideak. Gaur arte. Izan ere, egun Azpeitian bizi da Kucherenko, Martijaren etxean. “Oso gustura” daudela diote biek, baina hemezortzi urte atzera egin behar dira bide luze horren hasierara iristeko.

“Aurretiazko erretiroa hartu ostean, lan sozial bat egiteko beharra sentitzen nuen”, aitortu du Martijak. Hori horrela, 2000. urteko Errege Egunean deitu zien Txernobilgo Lagunak elkarteko kideei, eta urte bereko ekainean etorri zen lehendabizikoz Vladys Kucherenko Azpeitira. “Bitxia da bizitakoa. Berez, beste ume batek etorri behar zuen, baina

prozesua atzeratu, eta azkenean, Vladys etorri zen”, azaldu du. Etorri eta bereala bere lehen “oparia” jaso zuen ukrainiarrak: “Ez dut oso irudi garbia eta ez naiz oso ondo gogoratzen, baina aireportutik Azpeitira ekarri ninduen autobusak balaztada txiki bat izan zuen, eta ondorioz, kopetarekin aurreko aulkia jo eta kolpea hartu nuen”. Martijaren arabera, zauriak “itxura zatar samarra” hartu zuen, eta, azkenean, puntuak eman behar izan zizkioten. “Gogoratzeko moduko hasiera, zalantzarik gabe”.

Kucherenkok dioenez, laster hasi zen Azpeitian hobeto sentitzen, “baita osasun aldeetik ere”. Era berean, gazteak oso argi du Martijarengandik, haren familiarengandik eta ezagututako beste pertsona guztiarengandik

“izugarritzko babesa” sentitzen zuela eta horrek ikaragarri laguntzen ziola. “Zailena”, ordea, hemengo bizimodura ohitzea egin zitzaioela aitortu du.

Mende berriarekin batera hasitako prozesua uste baino gehiago luzatu zen; izan ere, 17 urte egin arte, urtero etorri zen Kucherenko Azpeitira, Txernobilgo Lagunak elkartearen laguntzarekin. Eta soka ez da eten: Ukrainan Hispaniar Filologia ikasketak burutu ostean, behin betiko Azpeitira etortzea erabaki zuen Kucherenkok, Martijaren arabera, bere alaba gazteenarekin adostuta.

Errealitatea errealitate, aldaketa guztiak egiteko prozesua “luzea eta astuna” dela dio Martijak, baina garbi adierazi du “merezi izan” duela. Abuztuan etorri zen Kucherenko Az-

peitira bizitzera, eta turismoari lotutako goi mailako zikloa ikasten hasi da dagoeneko. "Pozik" dagoen arren, ikasketa prozesura "ohitzen" ari dela dio: "Ostalaritzan ikusten naiz lanean, baina euskara ikastea falta zait. Ikasteko asmoa daukat. Lau hizkuntza hitz egiten ditut, eta iruditzen zait hori ere lagungarria izango zaidala".

Kontzientzia falta

"Ez da prozesu erraza", adierazi du Martijak; izan ere, haren arabera, halako proiektuen bidez ume bat etxera ekartzean kontuan izan behar da esperientzia gaizki irten daitekeela. Hala ere, Martijak azaldu duenez, "merezi" du prozesuan murgiltzeak. Azpeitiarrak, oraindik, gogoan dauzka Kucherenko umea zela Azpeitira iritsi zen sasoi hartako lehen egunak: "Gogorrak izan ziren, Vladysyk ez zekien euskaraz eta nik ere ez ukrainiarrez. Imintzioka hitz egiten genuen". Martijak buruan ditu hastepenetako hainbat anekdota ere: "Vladys eta biok hozkailuaren aurrean jartzen ginen, eta ahal nuen moduan esaten nion nahi zuen guztia jateko aukera zuela". Egoerak, ordea, ez zuen asko iraun horrela. Izan ere, Martijaren ustez, gazteak "azkar" ohitzen dira eremu berrietara, eta Vladys ere gauza bera gertatu zitzaion.

Uda sasoiari proiektuetako kasu guztiek, baina, ez dute Vladysen amaiera bera izan. Martijak ezagutu ditu egoera berrira ohitzen jakin ez, eta denbora asko pasatu baino lehen, umearekin adostutako oporraldia eten duten familiak. "Horrelakorik gertatzen bada, prozesuko bi protagonistek sufritzen dute, ez bakarrik hemengo familiak", gaineratu du. Gaiari lotuta, "kontzientziazio falta" azpimarratu du Martijak. "Askotan ez gara konturatzen gu baino askoz okerrago bizi diren pertsonak badaudela eta horiei laguntzen saiatu behar dugula". Eta bestearen lekuan jartzeak ere badu horrekin zerikusia; izan ere, hirutan joan da Martija Ukrainara, eta hango bizimodua nolakoa den ikusteak "inpresio handia" egin izan diola azaldu du. Horregatik, Txernobilgo Lagunak gisako elkartek "oso beharrezkoak" direla azpimarra-



1. Martija eta Kucherenko, azken horrek 7 bat urte zituenean, udan.
2. Kucherenko eta Kontxitaren biloba Nerea, 2001eko abuztuan.
3. Kucherenko eta Kontxitaren biloba Nahia iazko Urte Zahar gauean.

tu du. "Etortzen diren umeak asko badira ere, ume asko eta asko geratzen dira beraien sorrerian. Lagundu egin behar dugu, era batera edo bestera".

Nostalgia

Kucherenkok ez du zalantza izpirik: "Hemen ikusten dut nire etorkizuna". Eta badu horretarako argudiorik: "Hemengo kultura eta bizitza txikitatik gustatu izan zaizkit, eta hona etortzen nintzen bakoitzean imajinatzen nuen nire etorkizuna hemen egongo zela". Hala ere, Kucherenkok aitortu du "asko" sumatzen dituela faltan bere familia eta lagunak, eta oso argi du berarekin beti izango dela Ukraina herrialde "maitatuena". "Beste herrialde guztietan bezala, Ukrainan ere badira arazak. Baina hango kutsaduraren egoera ez da

lehen bezalakoa, eta gauzak hobetzen doaz", azaldu du herrialdeari erreferentzia eginez. "Inoiz pentsatu izan dut nire ama ere Azpeitira ekartzea, baina bera gustura dago dagoen lekuan, eta hona etorri gero, asko kostatuko litzaioke ohitzea era egokitzea", Kucherenkok.

Bi protagonisten arteko erlazioa oso ona da, eta Martijak miresmenez hitz egiten du haurra zela etxean hartu zuen gazteaz: "Nik berari baino gehiago eman dit berak niri". Kucherenkok ere Martijak emandako laguntza guztia ez du oharkabean pasatzen uzteko, eta malkoak begietan, hala esan du: "Bere laguntzarik gabe ezinezkoa zatekeen Azpeitian bizitzea". Elkarri begira, irribarrea ahoan, hala dio Martijak: "Ez da alaba, baina nik hala baltiz bezala maite dut".*

IKA Instalakuntza Elektrikoak
argi lanak s.l.
Urho: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ika@argilanak@gmail.com www.ikainstelmak.com
20730 AZPEITIA

Zure autoak beti dago ongi zainduz
FX AIZPURU AUTOAK
PREZIO BERRIKERAK
Tel: 543 81 23 89 aizpuru@aizpuru.net
Fax: 543 81 22 88 www.aizpuru.net
Arretza 97, 20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 28an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Igerilekua	81 41 21	EAJ	81 55 70
Emakumeen Txokoa	15 70 55	Sortu	15 72 00
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80	EA	81 00 11
Baigera I	81 51 71	Aralar	647 42 59 95
Baigera II	81 23 89		
Epaitegia	02 51 91	SINDIKATUAK	
Ekoetxea	81 24 48	ELA	81 34 46
		LAB	15 13 56
		EHNE	81 39 28

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00		
Anbulator. larrialdiak	02 54 01	KULTURA-EUSKARA	
Eguneko zentroa	15 74 96	Sanagustin	10 52 20
Asepeyo	81 44 00	Kultur Mahaia	674 16 56 84
Gurutze Gorria	85 32 97	Euskara Patronatua	81 45 18
DYA-Donostia	46 46 22	Natuluskara taldea	661 10 44 46

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58	Udal Euskaltegia	81 19 47
Hitza (Azpeitia)	81 38 41	Udal Liburutegia	15 71 95
Hitza (Zarautz)	89 00 17	Loiolako Liburutegia	81 65 08
Azpeitian Zer?	080688	Kontseilua	943 59 12 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35	Bai Euskarari	902 43 00 26
Berria	943 30 40 30	IKASTETXEAK	
Gara	943 31 69 99	Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06	Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
DV (berriemailea)	610 81 29 12	Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Argia	943 37 15 45	Ikasberri	15 12 46
Arrate Irratia	943 12 01 73	Karmelo Etxegarai	81 26 97
Euskadi Irratia	943 01 23 00	Urola BHI	15 02 28
ETB	943 01 17 05	Uztaro	81 31 90

BESTERIK

ALDERDI POLITIKOAK		Xoxoteko aterpea	58 10 07
Bildu	15 72 00	Eregi	943 08 06 88

FARMAZIAK (AZAROA)

1-3-4-9-12-22-28

Beristain (Azpeitia).
943 811949

2-7-14-21-27

Jacome (Azpeitia).
943 080258

6-13-17-18-23-29

Alberdi (Azpeitia).
943 815974

8-15-20-24-25-30

Arrieta (Azpeitia).
943 811274

5-10-11-16-19-26

Aranburu (Azpeitia).
943 811350

GAUEZ, URTE OSOAN

Alberdi (Azpeitia).
943 815974

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALETXEA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ANBULATORIOAN ERE BAI.

Kirol Orientazio Zerbitzua anbulatorioan eskainiko dute ostiraletan, 11:15etik 12:30era. Herritarrek medikuaren aginduz joan ahalko dute hitzordura.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

OIHAN OTAEGI

Shanghai, Txina

“denboraldi batez bizitzeko hiri oso ederra da shanghai”

Lana tarteko, otsailetik Txinan bizi da azpeitiarra. Dagoeneko ohitu da hango bizimodura eta errutinara. 📌 **Julene Frantzesena**

Noiz eta nolatan joan zinen Txinara?

Goi mailako ingeniari-tza ikasketen proiektua Danobat enpresan egin nuen, eta ordutik, bertan ari naiz lanean. Shanghain lantegi berria zabaldu behar zutela eta, hura martxan jartzera etortzeko aukera eman zidaten. Bi aldiz pentsatu gabe eman nuen baiezkoa; otsailaren 1etik nago hemen.

Zer moduz egokitu zara horra?

Oso ondo. Danobaten lan egiten duen Usurbilgo mutil bat ere hemen dago, eta hark asko lagundu dit hirian integratzen. Euskaldunetz osatutako kuadrilla daukagu, Euskal Etxeko futbol taldean aritzen gara, triatloietan parte hartzen dugu... Nire anaia ere Txinan bizi da duela sei bat urtetatik, eta haren bidez eza-gutzen nuen herrialdea lehenagotik.

Eta zer moduz hizkuntzarekin?

Txinera saioak izaten ditut astean hiru orduz. Hizkuntza apur bat jakiteak asko laguntzen du, eta jendeak asko eskertzen du ahalegina; guk ere eskertzen dugu Euskal Herrian.

Zerekin egin duzu topo Txinan?

Hemengo lan egiteko modua oso desberdina

da: asko kostatzen da gauzak lortzea, eta pazientzia behar da. Lankide txinatarrekin harreman ona daukat, baina ez dira kalera asko ateratzekoak. Gainerakoan, Shanghai aukeraz betetako hiria da. Denboraldi batez bizitzeko hiri oso ederra da.

Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxi?

Oso herrialde segurua da, eta horrek lasaitasuna ematen du. Gainera, herrialde ugari bisitatzeko aukera ere izan dut, hala nola Filipinak, Hego Korea edo Japonia. Gutxi gustatzen zaidana da etxetik oso urrun dagoela.

Bizimodu aldaketa nabaritu al duzu?

Urrun eta gertu kontzeptuen pertzepzioa ikaragarri aldatu zait. Azpeitian 30 minutu baino urrunagoko toki batera joateko bi aldiz pentsatzen nuen; hemen, edozein asteburutan trena edo hegazkina hartzen dugu bazterrak bisitatzeko. Hiri barruan norabait joateko ordubete pasatzea normala da niretzat orain.

Azpeitik zer sumatzen duzu faltan?

Neska laguna, batez ere, baina baita familia, lagunekin poteatzea eta balkoitik Izarraitz ikustea ere.✳



1. Otaegi, Txinako Yubeng herrian.
2. Bikotearrekin eta kuadrillakoekin, Shanghain.
3. Azpeitiarra –behean, erdian– Euskal Etxeko futbol taldeko kideekin.

9.947 kilometrora dago Shanghai.



Zalduondotik Azpeitira

Ziklista kontuak aditzera joan naiz Zalduondora. Zuen artean izango dira herri horretaraino ailegatu ez diren bi-daiari amorratuak, seguru. Ziklista bat dute bertan, aspaldi ziklista izandako agurea. Joxe. Oartzuarra. Ni jaio baino lehen ziklista ibilitakoa. Nik Erdikalean gora eta Artetxene-ko aldapan behera lehenengo ziklistak ikusi baino lehenagokoa. "Eragin, eragin!", hots egiten genuen prakamotxok, gure ondoko prakaluzeei adituta. "Eragin, eragin!". Eta Gabika, eta Perurena, eta Elortxa azkoitiarra izango ziren guk aupatzen genituen karreristak.

Ez dira bart arratseko kontuak. Gaurko kontu zaharrek eraman naute atzoko kontu berrietara. Jainkoaren bideak asmaezinak behin eta berriz eta askotan. Eta agure zahar bat, 80 urtetik gora, 90etik hurreago 80tik baino, etxetzar handi batean, soroaren erdian. Eta milaka sagar eta intxaur bertan, hektarea mordoan. Baina ziklistak ekarri nau Zalduondoraino.

Joan den mendearen erdi aldera, txapelduna izan zen Joxe. Bederatzi karrera irabazi zituen, Espainiako txapelketa lau aldiz ere bai, Ordiziako klasikoa eta Arrateko igoera, eta karrera bat Azpeitian. Ez daki berak nondik nora ibili ziren, oroitzapen bat du, hala ere, Ormaiztegitik pasatu eta Salbatoren barrena Mandubin gora hartu zutela, hiru zirela buruan: Bahamontes, batetik, eta Zabaleta eta Joxe bera, oartzuarrak biak, bestetik. Eta jo zuela Zabaletak, eta atzetik harrapatu zuela Bahamontesek. Eta jo zuela gero Joxek, eta atzetik harrapatu zuela Bahamontesek. Eta jo zuela berriz Zabaletak, eta atzetik harrapatu zuela Bahamontesek. Eta jo zuela berriz Joxek... eta horrelaxe lehertu zutela Tourra irabaziko zuen ziklista hura... Eta, hala ere, besterik gabe kontatzen ditu kontuak Joxek.

Kontrabandoan hasi

Dio diruaren aldera zebiltzala bizikleta gaine-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Akordatzen da bizikleta gurpil azalak eta dinamoak ekarri ohi zizkiola Azpeitira Odriozolari

an. Eta dozena erdi urte horrela ibili eta gero, dirubide seguruagoa barrundatu zuenean, utzi ziola bizikleta karrerak egiteari, eta ekin ziola kontrabandoari. Eta Oartzun frontieratik bertara egonda, ez zela negozio txarra. Eta zernahi ekartzen zutela Frantzia aldetik honako bazterretara. Eta akordatzen da bizikleta gurpil azalak eta dinamoak ekarri ohi zizkiola Azpeitira Odriozolari. Uitiri, inondik ere, txikitant bizikletak behin baino gehiagotan konpondu zizkigunari, herriko historian inon agertzen ote den ez dakidan instituzioari.

Bizikleta utzita, kontrabandokoak saltzea izan zuen lana Joxek, eta gerraondo hartan, hemengo partean ezer ez zegoenean, bizi-modua egin zuen, karreretan irabazitako dirua bizikletaren koadroko tutuan gordetzen ibili beharrik gabe. Aldi jakin bateko ofizioa izan zuen ziklistarena. Berak, benetan, artzain izan nahi izan zuen. Mendian. Eta menditik mundura eta mundutik mendira ibili bada ere, mendi-mundua izan du beti bere bizitoki Joxe Mitxelena ziklista txapeldunak.✘



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU AUKERA ZABALA
- SMART REZIL PANTAILA BIHARTEZKO EROSKETA
- KASTAIO EZA INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIZIKLATZE GASTU INTERBANKUA
- OBRA EZA OKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus ON LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etxetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrenal

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea



Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Muriel 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus

IRRIBARRE
HANDIENAK
ZAINTZEN
DITUGU

HORTZ INPLANTE ETA
PROTESIETAN ADITUGAK
GARA.

*Erraztasunak
ordainketan.



URTE!
OSPATZEN DITUGU

Juve Artelxe kalea 5
(Anbulatorio ondoan)
20750 Azpeitia

943 02 59 55

INNOVA
HORTZ KLINIKA